

Herriko bestak → 11-30

Bera, Leitza, Sunbilla,
Ziga, Gaztelu, Beintza-Lab.

ARANTZA → 35

20. Arantza Rock
prestatzen ari dira

SUNBILLA → 39

XIV. Ramon Latasa Saria
abuztuaren 9an

BAZTAN → 48

Bisita antzeztuak
Iruritako Jauregian

URDAZUBI → 51

24.000 euro eliza
ingurua moldatzeko

Xan ITHOURRIA



Pilotazalearen
izena jarri diote plaza
bati Senperen → 41

75 urte eta oraindik Beti Gazte



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Nahiz eta urte osoan ospakizunetan murgilduta egon, zehazki abuztuaren 9an beteko ditu 75 urte Lesakako Beti Gazte elkarteak. Egun horretarako Ezpata-dantzarien Eguna antolatu du eta garai ezberdinetan aritu diren ehun dantzari baino gehiago bildu nahi ditu Onin errekarén petritetan dantzatzeko. Urteurreneko ekitaldi nagusia izanen da, baina ez azkena.



**Txapel uzta
Iruñetik**

Nafarroako herri kirol txapel ugari etorri dira eskualdera Iruñeko Sanferminetatik. Tartean Xanta Sousa lesakarrak txinga eramaten lortutakoa. → 3-5

BIDE BERDEA

**Kontuz ibiltzeko
aholkua**

Iragan neguko euriteen ondorioz, Bidasoko natur bidean zenbait puntu kaltetuta daudenez (luiziak, zola altxatua, lurra eroria...) kontuz ibiltzeko aholkatu du Cedernak, Endarlatsa-Lesaka bidean eta Sunbillako tunelean bereziki. → 43

ZOKETAK

→ 35



**Adi! ttipi txartel berria
egunotan hartuko duzu!**



Xantelmar S.L. Zalain Ind. z/g
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625 157
www.martiko.com



BESTA ONAK PASA!



ZURE GOZAMENERAKO LEHENGAIK HOBERENAK.

DENDA ORDUTEGIA
Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko Zalain Ind. z/g 31780 Bera Nafarroa
Tel. 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

ZORIONAK!



Jantzi-dendak

Lurrin-dendak
Harategiak Jatetxeak

Bitxi-dendak
Ostatuak

Supermerkatuak
Sagardotegia

Tabako-dendak
Diskoteka

www.venta-peio.com

Tél: (0034) 902 210 800



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Ekainaren 6ko Beti Gazte Elkartearen Egunean, garai bateko eta oraingo futbolariak aurrez aurre izan ziren Mastegi futbol zelaian.

GIZARTEA → ABUZTUAREN 9AN EZPATA-DANTZARIEN EGUNA OSPATUKO DUTE

75 urtetan oraindik sasoiko dago Lesakako Beti Gazte

1.071 bazkide dituen elkarteak urte osoan ari da urtebetetze berezi honetako ekitaldiak egiten

75 urte eta oraindik Beti Gazte. Goiburu horrekin 75.urteurreneko ospakizunetan murgildua dabil urte osoan Lesakako elkarteak. Gaugerero hainbat ekitaldi burutu ditu, baina bereziena, abuztuaren

9ko Ezpata-dantzarien Eguna izanen da. Justu 75 urte egiten dituen egunean, ehun dantzari baino gehiago bilduko dituzte Onin erreka bazterretan dantzan.

Aitor AROTZENA

Hainbertze kirol taldek ematen duten lana alde batera utzi gabe, Beti Gazte elkarteak urte osoan ari da ospakizunetan. Lesaka eta Zarautz arteko kostako bi-dea egin du mendizale taldeak, hiru egunez. Txindoki, Aizkorri, Anboto, Hiru Erregeen Mahaia... bisitatu nahi dituzte. Maiatzaren 9an Musika Banden Alardea egin zuten, ekainaren 6an jokalariek eta jokalariei ohien topaketa, lau larunbatez Herri Olinpiadak, uztailaren 5ean erraldoien topaketa eta herri kirol jaialdia... Ur-

te osoko ekitaldiak boro-biltzeko, abuztuaren 9an (Beti Gazteren sorreraren data zehatza, 1940ko abuztuaren 9an sortu baitzen) Ezpata-dantzarien Eguna antolatuko dute. Jose Luis Sundegi presidentek aipatu digunez, «uste dugu ezpata-dantzariak eta Zubigainekoa direla Lesaka hobekien errepresentatzen dutenak, lesakarrak horrekin identifikatuak sentitzen gara eta horrek batzen gaitu. Horregatik, lehengo eta oraingo ezpata-dantzariak omendu eta elkarrekin dantzan ikusi nahi ditu-

ZELAIAREN GARRANTZIA

«Garrantzitsua izan zen Mastegi futbol zelaia eraikitzea, oinarritzko futboleko lan ona egiteko aukera eman dugu eta horri esker, egun 200 fitxa baino gehiago ditugu. Harrotasunez betetzen gaitu Beti Gazteko jokalariek Lesaka baino bortz aldiz handiagoak diren herrietako taldeen kontra lehiari parez pare ikusteak»

Jose Luis SUNDEGI
Beti Gazteko presidentea

gu. Egia errateko, harreko hagitz ona izan dugu dantzarien artean eta zazpi talde biltzea espero dugu, 105 dantzari».

Urtemugako ekitaldi nagusia izanen da, baina ez azkena. «Abuztuaren 9an diote elkartetik» kategorian ezberdinetako futbol torneoak antolatuko ditugu, Nafarroako Mendi Taldeen Eguna ere Lesakan izanen da urriaren 4an, gu bezala 75.urteurrena ospatzen ari den Obereko taldearekin batera antolatua, Lesakako abesbatzak eta soinu-lari taldeak kontzertua eskainiko dute abendu-

an... Eta bertzeren bat ere izanen da, seguro!».

Hainbertze ekitaldi antolatzeak, noski, lan handia dakar gibeletik. Modesto Maia, 75.urteurreneko koordinatzaileak azpimarratu nahi izan du herriko bertze elkarte eta taldeek izan duten elkarlanerako borondatea: «Musika bandak banden alardean eta Ezpata-dantzarien Egunean lagundu du, erraldoi konpartsak erraldoien topaketan, Gazte Asanbladak Herri Olinpiadan, Lesakako Abesbatzak eta Soinu-lari taldeak kontzertu ezberdinetan, Tantirumairu dantza taldeak, ezpata-dantzariak eta txistulariek Ezpata-dantzarien Egunean eta seguru bakarren bat ahaztuko dugula... Herriko bertze taldeei ere parte hartzeko aukera luzatu nahi izan diegu baita eskuzabal onartu ere!».

Hiru mende laurdenetan gauza aunitz gertatzen dira, baina presidentek elkartearen historian zenbait mugari azpimarratu ditu: «Kirol arloan, oihartzun handiena sokatira taldeak lortu zuen, Munduko txapelak izan bai-

tzen hiru urtetan, Nafarroako eta Euskadiko bertze hainbat txapelketaz gain. Modu berean, garrantzitsua izan zen Mastegi futbol zelaia eraikitzea, oinarriko futboleko lan ona egiteko aukera eman digu eta horri esker, gaur egun 200 fitxa baino gehiago ditugu. Egia erra-teko, harrotasunez betetzen gaitu Beti Gazteko jokariak Lesaka baino borts aldiz handiagoak diren herrietako taldeekin nor baino nor gehiago lehiatzen ikus-tea». Hain zuzen, abuztuaren 9an beteko ditu 18 urte futbol zelai berriak ere. «Nahitaezkoa izan zen aldatzea, Kristo-Enearen egoera ezin baitzen jasan. Gipuzkoako Futbol Federazioak nahiz gure kontra aritzen ziren taldeek izan zuten pazientzia eskertzekoa da».



400 KIROLARI BAINO GEHIAGO

Zehazki, 208 fitxa izan ditu denboraldi honetan futboleko Beti Gazteko (horietatik 42 emakumeak), 16 fitxa sokatiran, 155 mendi taldean, 34 txirrindularitzan eta triatloto 3.

Kirol arloan ez ezik, kulturaren ere bere lana egiten du Beti Gazteko. Bere garaian, futbolariek sortzen zituen gastuak estaltzeko antzerki, dantza edo zine emanaldiak eskaintzen zituzten Otxogorriean. Gaur egun, margo eta ipuin lehiaketak, Arbolaren Eguna, argazkilaritza digital ikastaroa eskaini duen argazkilaritza atal berria, Irakurketa Kluba... «Horretaz gain, —dio Sunsundegik— 30 urte baino gehiago daramazkigu ferietako ajoarriero lehiaketa antolatzen eta due-la borts urte, argazkilaritza eta Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketak



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Goitiko argazkan, 75. urteurreneko ekitaldiak antolatzen buru-belarri ari den zuzendaritza batzordea. Behe-tian, 2004an Eskozian Munduko txapeldun izan zen sokatira taldea.

berreskuratu genituen. Gauza batengatik edo bertzearengatik, herriko bertze elkarte edo taldeek estaltzen ez dituzten arloak landu nahi izaten ditugu kultura aldetik».

Zuzendaritza batzordea ortzegunero biltzen da urte osoan, eta «hori desgaste handia da,

konstantzia eskatzen du». Lanik gehiena futbolariek ematen du, urtean hamar hilabetez aritzen direlako eta «azpimarratzekoak dira bere borondatez eta musu-truk lan izugarria eta ordainezina egiten duten entrenatzaileak, astean hiruzpalau egun, aste-buruak barne, eskain-

tzen baitizkiote taldeari».

Hori bai, ateak zabali dituela gogorarazi nahi du Beti Gazteko zuzendaritza batzordeak eta batez ere gazteak, «beraiek baitira elkar-tearen etorkizuna bermatzeko giltza». Eta Beti Gazte beti gazte mantentzeko sekretua.



KLUBA DATUTAN

- **1.071** bazkide ditu gaur egun.
- Futboleko **208** fitxa izan ditu 2014-15 denboraldian: Ohorezko mailan 28, jubenilak 23, kadeteak 28, emakumeak erregionala 22, neskak futbol-8an 20 eta futbol eskolan (infantilak, alebinak, benjaminak) 87.
- Horretaz gain, sokatiran **16** fitxa, mendian **155** lizentzia, txirrindularitzan **34** eta triatlotoian **3** ditu.
- **Kristo-Enea** futbol zelai historikoa ordezkatu zuen **Mastegi** futbol zelaia ere 18 urte beteko ditu abuztuaren 9an (1997an inauguratu zuten).



Goitian, Beti Gazten lehen hamaikakoa 1940an eta ondoren, Gure Txokoaren kontrako derbia 1948an. Urte hartan Bidasoko txapelketa irabazi zuen.

HISTORIA → 75 URTEKO GORABEHERAK

Bidasoko futbol Alironetik Munduko sokatira txapelketara

A. AROTZENA

Beti Gazte elkarteak 1940 abuztuaren 9an jaio zen, garai hartako kirol eta kultur jardueren gehienak bultzatzen zituen Acción Católica elkartearen Gaztediaren eskutik. Akta batek dioenez, «bazkideen kirol sukarrari, eta batez ere *football*arenari erantzuteko» sortu zuten. Hasieran, bortsatzaileak zituen: pilota, futbola, alpinismoa, txirrindularitza eta atletismoa eta bazkideek, sarrerako 5 pezeta eta hileroko pezetako kuota ordaintzeaz gain, portaera egoia (*“conducta honesta”*) erakutsi behar zuten. Lehenbiziko urte haietan, futboleko konpetizio ofizialik gabe, lagunarteko futbol partidak jokatu zituzten Bidasoaldeko taldeen kontra, garraiorako Bidasoko Trena erabiliz. 1948an Bidasoko lehen txapelketa irabazi zuen Beti Gazte eta sari modura, *Alirona* konposatu zuen Feliciano Beobide musikariak eta oraindik elkartearen himnotzat erabiltzen da. 1950an, lehen Copa Frontera ere irabazi zuen Lesakako elkartek. Lehenbiziko hamar-

kada haietan hainbat aldiz irabazi zuen Bidasoko txapelketa, baina 1960-1970. hamarkadetan futbol taldea desagertu ere egin zen eta kirolerako gogoia zuten jokalariek Iruñe edo Berara joan behar izan zuten aritzera. 1970. hamarkadan Vasco-Navarro izeneko txapelketan hasi ziren, eta 1973an finalista izan ziren. Hamarkada bukaeran, futbola federatu egin zen eta hurbiltasunarengatik, Gipuzkoan lehiatzen hasi zen Beti Gazte, lehen aldiz araututako liga baita. Erregionaleko bigarren mailan txapeldun izan zen 1979-80 denboraldian, lehen mailara igoz. Berriz ere jautsi egin zen 1983-84 denboraldian, baina bi denboraldiz segidan, 84-85 eta 85-86an, mailaz igo eta Preferentera ailegatu zen lehen aldiz. Azken 30 urte hauetan Preferente eta Erregionaleko lehen mailaren artean ibili da. 1995-96 denboraldian Erregionaleko lehen mailako liga eta kopa irabazi zituen, dobletea. 1997ko abuztuaren 9an egin zuten Mastegi futbol zelaiaren estreinaldia. Honek, Kristo-Enea



futbol zelai kaxkarra ordezkatu zuen. Francoren kontra gerran aritutako presoek egin behar izan zuten eta bukatu orduko, berri baten beharra eta eskakizuna izan zuten.

MUNDUKO TXAPELDUN SOKATIRAN

Baina nazioartean Beti Gazteri izena eman dion kirola sokatira izan da. XX. mendearen azken hamarkadan Nafarroa eta Euskal Herriko hainbat txapelketa irabazi ondoren, Munduko klub arteko txapeldun izan zen hiru urtez, Irlandan (Carlow, 1999), Holandan (Slagharen, 2000) eta Eskozian (Glasgow, 2004). Hainbat urtez talderik gabe

egon ondoren, ia bueltatu ziren goma gainera eta Nafarroako txapeldun izan ziren. Aurten ere 4x4 txapelketa irabazia dute Nafarroan. Hainbertzeko ibilbiderik egin ez bazuten ere, emakumeen taldeak ere Munduko txapelketa batean parte hartu zuen Italian (Cesenatico, 2010).

Sokatira ez ezik, Beti Gazte talde federatuak izan ditu saskibaloian, areto-futboleko, txirrindularitzan, xakean edo mahai-tenisean, bertzeak bertze. Nazioarteko xake txapelketa ere antolatu zuen hainbat urtez. 1985an Arkupe pilotazale elkarteak sortu zen arte, pilota kontuak ere Beti Gaztekin landu zituen.



Nire txanda
Ruben GARATE

Igerilekua

Udako igerileku, sorosle eta gisakoen inguruko artikulua irakurri nuen lehengoan egunkari batean: ezin ailegatuz zebiltzala, ordu batzuetan bigilantzia gehiago behar dela, denarako egoten baitira: putzua bigilatzeke, kura tikiak egiteko edo egunean zehar gertatzen den edozer gauzetarako eta egia erran, ez nau harritzen protesta egitea. Niri dagokidanez, Elizondon dagoen Baztango udal igerilekura joaten naiz, behetik botatz 7.500 bizilagunendako 190 pertsona hartzen ahal dituen igerilekua. Egun bero batean, eta uda honetan baditugu batzuk, kopuru hori baino gehiago sartzen dela iruditzen zait. Nik hurbilekoak kontrolatuak edukitzeko nahiko lan izaten dut, beraz sorosle batek, bere enpeinu guzia jarrita ere (jartzen ez badu zer erranik ez) ia ezinezkoa du hori dena kontrolpean edukitzea. Agian ere ez da deus gertatuko, aditu eta ikusten denarekin ikaragarria izanen bailitzake. Dagokionak baloratu dezala Lekarozko igerilekua berriz ere funtzionatzen jartzeko aukera, bere garaian Irurita, Lekaroz, Oronoz eta Gartzaingo jendea joaten zen eta horrek, guttienez, Elizondokoa arinduko luke.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Gaixoa Ni Lesakan ere

Beharbada sare sozialen edo zenbait komunikabideren bidez ikusi eta irakurritakoarekin norbaitek pentsa dezake Lesaka borroka, sexu eta drogaren hiriburua izan dela Sanferminetako asteburuan: Magaluf txiki bat, baina atzerritarren orde, horditutako gipuzkoar eta bizkaitarrek inbaditua. Baina salbuespenak salbuespen, giro ona izan da nagusi. Eta rock&rolla ere izan zen!

Nabarmentzekoak



Mercedes ERREGERENA
300 euroko saria

Hiri Hondakinen Mankomunitateek eta udalek banatatutako egutegien zenbaki sarituak ez dira agertu orain arte. Oraingoan, erratzuarrak lortu du 300 euroko erosketa-bonoa.



Oaia PERUARENA
Berako margolaria

Abuztuaren 16rabitarte ikusgai daude bere sorterriko Kultur Etxean *Argi Jokoak* goiburupean erakusten dituen margolanak. Aitzinetik, hainbat lekutan zintzilikatu ditu bere lanak.



Jon KANFLANKA
Nafarroako txapelkun segan

Bortz urtez ez da sega txapelketarik jokatu Nafarroan, kirolarien faltan. Aurtan, txapelketa honen bosgarren edizioa jokatu da eta Leitza-ko Jon Kanflankak irabazi du lehen aldiz.

Atzera begira → 2005-VII-28 / TTIPI-TTAPA 403 zk.



Arantzako Ekaitza elkarteak 25 urte bete zituen

Duela hamar urte, 25. urteurrena ospatzeko egun berezia antolatu zuen Arantzako Ekaitza elkarteak eta aitzaki horrekin, Panttaleon Errandonea elkarteak lehendakaria, 25 urte beranduago lehendakari zen Xabi Altzuri eta bai sorrerako bai urteurrenako batzordean lanean ari zen Gabi Goiarekin bildu zen Ttipi-Ttapa. Garai hartan herriko mapa topografikoa egin nahizik zebilen elkartea eta hasieran, «gure artean elkartzeko toki bat nahi genuen, helburuetako bat gure lokala izatea zen, elkarrekin lasai egoteko eta gure ekintzak antolatzeke». Lokala Isidro Etxeberriari alokatu eta auzolanean moldatu zuten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • **info@titi-ttapa.eus**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Lesakako oroitzapenak (IV)

Esteban IRUSTA MALLEA

Maiatzaren 24an hauteskundeak izan ziren, eta Nafarroan aldaketa interesgarriak izan ditugu. Ni, pertsonalki, asko poztu naiz izan diren aldaketekin. Demokraziak asko irabaziko duela uste dut. Ondorioz, Nafarroako euskaldunen eskubideak onartuak izango dira. Hau da, Euskal Telebista ikusi ahal izango da lurralde guztian; euskal iratiak, arazorik gabe, entzun ahal izango dira. Ikurrinak beste mundu guztiko banderen eskubide berdinak izango ditu. Alde guztietako nafar ikasleek beraien ikasketak euskaraz ikasi ahal izango dute. Hala espero dugu. Oraindik, gogoan dut nola Fiteron egon nintzen hitzegiten 14-15 urteko neska-mutilekin. Eta galdetuz ea euskaraz bazekiten, erantzuna, zoritxarrez, pentsatzen nuen izan zen; baina gero esan zidatenak pena handiagoa eman zidan: Nahi zutela ikasi, baina ez zutela aukerarik horretarako. Ea, orain, anormaltasunetik normaltasunera beharrezko pausoak ematen diren, eta konpontzen duten XXI. mendean ulertezina den egoera hau.

Kirolzaleak izanik, eta telebistaz ikusteko aukerarik ez zegoenez, inguruko frontoietara joaten ginen orduko pilotari hoberenak ikustera. Adibidez, Donostiako Anoetan, Marzelino Bergara etxalartarra eta J.M. Palacios "Ogeta" aurrelarien arteko lehia interesgarriak ikustera. Beste aldetik, ezin dira ahaztu lehenbiziko bi nafar txapeldun handiak: Julian Lajos eta Juan Ignacio Retegi, Retegi I. Nafarroako eskuzko pilotari nagusitasuna, gaurdaino irauten duena, beraiekin hasi zen. Aurretik, Hilario Azkarate bizkaitarraren agintea izan zen. Bere kasua aipatzea merezi du. Bederatzi finalak, 1960tik 1968ra artekoak segidan jokatu, sei irabazi zituen. Palara pasatuz, Balda frontoian, Manolo Iturri (askorentzat, historiako palista hoberena) jokatzeko ikustea gozamenaren zen. Inoiz, partida bukaerako komentarioa, hauxe zen: "Hobeki jokatzetik ez dago". Bere aurkari gogorrena, beste etxalartar bat zen: Fede Arribilaga, maila handiko jokalaria. Beste frontoi bat, (hau ere Donostian, eta gaur egun desagertua) Urumea izeneko zen. Bertan, erremontez jokatzeko zuten. Partida ikusgarrienak Pablo Lekunberri, Areso, Arbizu eta Salsamendi-III. en artekoak izaten ziren. Beraiekin batera, sarritan, Ugarte beratarrek jokatzeko zuten. Ugarte ez da Berak izan duen erremontista bakarra. Bere aurretik, *Nafarroako lehoia* ezizenez ezagutua, Joxe Irigoin (1893-1970) txapeldun handia izan zen. Ondoren, agertuko zen erremontea eman duen izar handiena: Jesus Abrego (Arroniz-1910-1997). Oronoz-Mugaireko kasua berezia zen. Maristek zeukaten ikastetxean, Marista Segundok antolatuta, Pilota Eguna izeneko jaia ospatzen zen. Garaioko jokalaririk hoberenak, palaz, eskuz eta zesta puntaz aritzen ziren. Lesakan, gehienetan, afizionatu mailan nabarmentzen zirenak jokatzeko zuten. Adibidez, Tapia anaiak, profesional mailara salto egiteko zeudela. Garai haietan, besteen artean, Anton Maiz aranztarra eta Salbador Bergara etxalartarrak ere, bere lehen pausoak eman zituzten figurak handiak izan aurretik, profesional mailan.

Bukatu nahi dut, Lesakako Beti Gazteren futbol taldeak zorionduz. Urtetan lehiak ari dira, bera baino herri askoz handiagoekin. Meritu handia beraiena.

Zahartzen garenean

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Ekainaren 25ean izan nintzen, beste bi lagunekin, Iruñeko Vaguada izeneko zahar-etxean txistua jotzen. Dagoeneko lau ikasturte bete ditugu hara joaten, hilean behin, musikarekin hango zaharrak pixka bat entretenitu eta unetxo batzuk alaiagoak egin dakizkien.

Hango egoera oso bitxia eta ezberdina da: pertsona zahar asko topatu ahal ditugu, gizon eta emakumeak, gehienak gorpil-aulkitan eserita, beste batzuk, gutxiago, oraindik oinez ibiltzeko moldatzen direnak. Guk musika jotzen dugun bitartean, batzuk egoten dira lo antzean -deustaz jabetuko ez balira bezala-, beste batzuk, ordea, oso adi eta erne, kantatzen, aurpegia alaituta, txaloak eginez, erritmoa eramanez... Eta, azkenik, badago beste taldetxo bat, itxuraz nahiko txepelduta egoten dena, baina askotan harritzen nauena, izan ere, behin baino gehiagotan egoten dira begiak itxita eta ematen du ez direla deustaz ohartzen, baina, hala ere, bat-batean ohartzen zara erritmoa eramaten ari direla esku batekin, edo biek, edo oinek, edo gorputzarekin, edo isilean abesten ari direla, eta bat eta beste, eta horrek guztiak niri grazia egin eta poza ematen dit. Batzuetan, bata bestearekin haserretzen dira umeen moduan. Beste batzuetan, txistua jotzen ari garen bitartean, baten batek oihu ozenen bat egiten du. Hasieran inpresio handi samarra egiten dizu, baina geroxeago ohitzen zara pixka bat.

Badira momentu batzuk, non ohartzen baikara baten batek itolarria duela, komunera joateko premia, edota kalera edo etxera joateko nahia... Une horiek gogor eta lazgarri samarrak gertatzen zaizkit, izan ere, hainbeste bizitasun, lan eta eskarmentu izan dituzten pertsona errespetagarri horiek, orain, momentu eta egoera latz horietan, ikusten baitira haur jaioberri eta babesgabeak bezalaxe.

Zahar-etxe horien egoerak zer pentsatu handia ematen dute. Hantxe dezenteko masifikazioa sumatzen dut, eta gizarte arruntetik aldentu samarturik. Gainera, kontuan edukitzea behar da, nik hemen solairu bat edo bi aipatu ditudala, baina badakit erabateko ziurtasunez, Vaguada izeneko zahar-etxean bertan badagoela beste solairu bat gutxienez, jende larriagoa daukana, hau da, bukaerako egoeran dagoena. Horri guztiari gehitu behar zaio, zahar-etxe horiek, gehienak behinik behin, pribatuak izaten direla, eta ondorioz, garestiak edo garesti samarrak behintzat bai. Nire ustez, bai merezi duela gizarte honetako agintariak gai horietan inbertitzea denon dirua, zahar-etxe publiko eta merkeago gehiago egiteko, bat auzo bakoitzeko gutxi gorabehera, hango zaharrak hobeki sentitzeko, masifikaziorik gabe, giro bero eta goxoago batean, eta ia-ia etxean bezalaxe.

Guri ere noizbait tokatuko zaigu iristea adin horretara, luzaro bizi baldin gara gutxienez, eta auskalo non eta nola egokituko zaigun guri, bizitzaren udazkena pasatzea. Momentuz, kontsolatuko naiz gogoratuz, gorago aipatutako zahar-etxe horretan, nola pertsona haietako batzuk saiatzen diren dantzatzeko musikaren erritmoan, eta nola hainbat doinu, dantza eta abesti euskaldun ere ezagutu eta kantatzen dituzten.

Irakurleak mintzo**Zer ikusi,
hura ikasi****Idoia GILLENEA (Elizondo)**

Ez naiz berriro hasi-
ko erraten eta azaltzen
ze arazo daukagun Baz-
tango herri batzuetan
mutildantekin, aski on-
gi azaldu zuten pasa den
alean Plazara Dan-
tzako herri ekimeneko-
ek. Elizondoko bestak
ailegatuko dira eta
22:00etan bazterketa-
rik gabeko mutildantza
publikoa, Elizondoko
plaza publikoan dan-
tzatuko da.

Bi ordu lehenago or-
dea, Baztango Muti-
dantzari taldeak (gizo-
nezkoen taldeak tradi-
zioaren izenean, ema-
kumeei dantzatzan uz-
ten ez dienak), Elizon-
doko ikastolan dagoen
parke publiko batean
dantzatuko du.

Haur parke publiko
bat erabili eta heldu bat-
zuek espazioa pribati-
zatuko dute, beraien
arauen baitan, gauza
arras garrantzitsua de-
bekatuz, emakumeak
izateagatik beraiekin ba-
tera dantzatzea, tradi-
zio baztertzaila baten
izenean. Parke publiko-
ak erabiltzen dituzten gu-
re txikiak, errespetuan,
parekidetasunean,
bazterketarik gabeko
erlazioetan hezi nahi di-
tugu? Ba... eredu polita
ari gara erakusten!

Ezinbestekoa da, gu-
re ondorengoei, elkarbi-
zitan, aniztasunean, as-
katasunean, errespetu-
an, parekidetasunean oi-
narritutako ereduak era-
kustea. Horregatik, ani-
matu nahi zaituztet Baz-
tango herriko plaza pu-
blikoetan dantzatuko di-
ren mutildantzetara
agertzera. 22:00etan da
hitzordua, ikusle edo
dantzari. Ongi pasatu
bestak askatasunean eta
elkartasunean!!!

Bota bertsoa**Aitor AROTZENA ALBITZU • Doinua: Habanera****Baztan-Bidasoaldeko XXVIII. Bertsopaper lehiaketan 2. saria****Beti Gaztek 75 urte**

1 Mila bederatzirehun
eta berrogeigarrena
agorrilak bederlatzi
egun egin zituen,
gazte lagun talde batek
soberan zuen kemena
eta football-an sukarra
bero zainetan barrena,
Beti Gazte sortu zuten
horra lehen garaipena
Lesakan kirol arloan
dena ez bada gehiena
borondatez eta sendo,
indarrez eman duena
aurten ospatu dezagun
gogotsu urteurrena.

2 Futbolearen aritzeko
zelaia zen lehen plana
Gerrako prisioneroek
bortxaz egin zuten lana
herriko gazteak ere
biltzen ziren haiengana
zuloak, lohia eta ura
baloi bustiaren zama
“arauzko neurririk ez du”
horrela zuten errana
baina futbol zelai harek
eskuratutako fama!
Kristo-Enea genuen
Lesakako Maracana
kristo egina zegonez
izena eta izana.

3 Baztanetik Irunera
nola jausten den erreka
izokinak behetik goiti
harri artean gordeka
gisa hartara zebilen
futbolariak beteta
Txikito deitzen zioten
trena urari fereka
zaleen txalo-zartada,
oihu eta errieta
irabaztean expantuk
galtzean beltza kopeta
partidu onak jokatzu
txarrak ere bai tarteka
irabazi zuten lehen
Bidasoko txapelketa.

4 Alirona lortu zuten
eta handik bi urtera
berri eskuratu zuten
Irunen Copa Frontera
musika banda eta guzi
herritarrak ospatzera
autobusaren gainean
batera eta bertzer
kalez kale ibilita
Udaletxean harrera
garai ilunak zirenez
ez zen izaten sobera
lagunen artean pozik
besta egiteko aukera
parrandazaleen fama
garai hartakoa ote da?

5 Gure Txokoaren kontra
Bortzirritako derbia,
urtero ez zen izaten
espero bezain garbia
jokoan zein talde ote zen
“bortz erriyeta obia”
irabazteak zekarren
ospea, kategoria
herrian harrotasuna
(batzuen harrokeria)
hura gogoan aitortu
beharko nuke egia
bi herrik lotzen duena
ez da San Migel zubia
baizik partida haietan
idatzi zen historia.

6 Nahiz eta gaur dirudien
ez dela sekula hilko
garai haietan egon zen
ez klub eta ez ekipo
batzuk kieto eta bertzeak
jokatu nahi eta kito
talde bila joan zen zenbait
jokalaririk historiko
erdi broma, erdi serio
konforme edo kritiko
asmatu zuten txistea
gelditu zaigu betiko:
“Gure Txokoak fitxatu
dituela bi txinito”
Berara joan zirenean
Juan-Txin eta Mano-Lito.

7 Ye-yé garaian sartuta
bigote eta melena
talderik gabe egon zen
hamarkadarik gehiena
halere Vasco-Navarron
eman zutenez izena
finalera ailegatu
baina galdu, ai ze pena!
dena den aipatzekoa
etxera ekarri zutena:
kiroltasunaren kopa,
jokalaririk onena,
hura haundia izan zen
baina garrantzitsuena
ondokoei ziurtatu
zietela jarraipena.

8 Hurbiltasunarengatik
bixitan Gipuzkoaldea
abudo somatu zuten
nafartarren adorea
mailaz maila egin zuten
Preferentzia bidea
herri ttiki batentzako
haundia zen ohorea
baina maila ere handia
suerta zitzaien ordea
saiklapenean sarritan
zulo beltzean gordea
hala irabazi zuten
merezi izenordea
goiti ta beheiti zebilen
ekipo aszensora.

9 Kristo-Eneak ordeko
dotorea du Mastegi
batzuentzako eskaxko
bertzeentzako gehiegi
belar artifiziala,
aldagela, argiteri,
neurritz egokia eta
ur-sistema, sei porteri
euria egiten badu
guardasolik ez ateri
harmailako teilazpian
beti goxo eta ateri,
nahiz eta izan litezken
keja, kontu eta tonteri
hori nola esplikatu
lohitan ohitu zen bateri.

10 Baina futbola ez da dena
Mundu honetan jakina
herri kirolean ere
egin dute ahalegina
sokari tinko helduta
dena indar eta grina,
izerdi, negar, odola
gozoa eta samina,
pisu barnean sartzeko
pasatuz gose gordina
hemen ere ezintasuna
ekinarekin egina
sufimenduei ateraz
emaitza sinestezina
Munduko txapelketatik
hainbat urrezko domina.

11 Bertze kirolean ere
egina dute tartea
pilotarentzat izan zen
lehenbiziko arkupea
saskibaloi taldearen
defentsa eta atakea
futbito taldea ez ezik
txapelketa potentea
igerian lehiaketak,
mendizaleak, xakea,
txirrindularitzan ere
gurpila eta katea,
baina gerta daitekenez,
aurrez barkamen eskea,
hainbertze kirol artean
bakarren batzuk ahaztea.

12 Hirurogeita hamabortz
urte beteak kemenez
bertso-sorta izan dadila
sortzaile haien omenez
Historia ez da idazten
bakarrikan garaipenez
ezta dataz, ezta lekuz,
ezta izen-abizenez,
baita oinaze eta minez,
tristuraz, oroitzapenez,
orain hogeitabatgarren
mendean sartu garenez
etorkizunari gaude
begira itxaropenez
baina ez gaitezen ahanztu
hemendik falta direnez.

Prentsatik bildutakoak



«[Duela urtebeteko uholdeaz] Goizeko 6etan ernatu, presa begiratu eta ohatzera bueltatu nintzen. Bi ordu eta erdi beranduago, etxe guzia urpean zegoen eta or ikusten dute Tere oiloak ateratzen Ezkerra etxera eramateko. Hura desastrea! armairuak, mahaiak eta aulkiak ur gainean, karrikara begiratu eta ezin genuen sine-tsi. Ikaragarria zen!».

Nati BIELSA MUNARRIZ
Elizondoko bizilaguna
D. NOTICIAS 2015.07.04

«Fructuoso, gure aita zenak 1913ko uholdean ohol handi baten gainean pasatu behar izan zuen ondoko Mitxelkonera, bere bizia salbatzeko. Lehen lauzpabortz uholde handi izaten ziren urtero, eta gu erreka bazterrean izanik, zerriak eta oiloak gordetzen zizkiguten Ezkerran eta Antxitonean. Baina egia da iazkoa izugarria izan zela».

Tere BIELSA MUNARRIZ
Elizondoko bizilaguna
D. NOTICIAS 2015.07.04

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Kirolaria, dantzaria eta parrandazalea den 18 urteko sunbilar gaztea.

Zein afizio dituzu?

Bizikleta, mendia, futbola, euskal dantzak, lagunekin besta egitea...

Dantzan edo bizikleta gainean, non gustorago?

Bietan. Bizikleta gehiago gus-tatu arren, dantza taldeko giroa paregabea da eta gainera guttiago sufritzen da.

Kirola eta besta nola uztartzen dira?

Zaila da, aunitzetan etxean gelditu behar izaten dut, baina udan herriz herri ibiltzen naiz karrierarik ez dudala aprobetxatuz.

BTT irakurri eta zure abizena ez da urruti izaten...

Inguruan BTTan konpetitzen dugun gutti garelako! (irriz)

Bizikletaren frenua, erabiltzeko edo adornotarako?

Adornoa baino zerbait gehiago dela erranen nuke...

Zein da zure ustez Sunbi-

lako besten berezitasuna?

Arront herrikoia direla.

Bestetako egunik politena?

Peñen eguna dudarik gabe. Goizean krosa izaten da, gero kuadrilen bazkaria eta ondoren ura! Egun konpletoena da nerek eta baita gazte gehienendako ere, nik uste.

Eta ekitaldirik maiteena?

Arretxeko bordako krono-eskalada, nahiz eta haraino goitzea ez den hain xamurra... Bizikletazalea izanik, herrikoen arteko proba honetan giro polita sortzen da eta banaka ateratzen garenez, ikusle guztien animoak jasotzea ere polita izaten da.

Norekin eginen zenuke gustora dantza?

Euskal dantzak gustoko dituen edozeinekin.

Amets bat?

Egunen batean Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartzea.



Eneko HERRERA → Sunbillako gaztea

BORTZIRIAK^{SL}
25 urte eskerririk asko guztioi!!!
expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

MAHAI eta AULKIETAN ESKAINTZA BEREZIAK

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 .
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

IRA-GAR-KIA

aldizkarian
interneten

8EURO

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
www.ttipi.eus

GIZARTEA

ERRETIRATUAK → UZTAILAREN 21EAN BUKATU ZUTEN

Arkupeak elkarteko 31 bazkidek egin dute Baztango Santiago Bidea

F. ETXEBERRIA

Baztango Santiago Bidea egin dute Arkupeak elkarteko 31 bazkidek, hiru etapatan banatuta: Dantxarinea-Elizondo, Elizondo-Lanz eta Lanz-Arre. Uztailaren 21ean bukatu zuten. Lehen eguneko eurari umore onez eta kantari erantzun zioten ibiltariak. Bigarrenean Be-lateko baselizan geldialdixoa egin zuten eta hirugarrenean bukatutzat eman zen 1999an hasi zen bidea. Hiru al-

diz egin dute Santiago Bidea Arkupeak elkarteko kideek, bitan bide frantsesa deitzen denetik eta behin kostako bidetik.

Irungo mendizaleek ere gonbidapena luzatu diete Arkupeak elkartekoei, hilabetero egiten dituzten ateraldietan lekua izaten baitute. Autobusa Elizondotik ateratzen da eta bidean hartuko ditu parte hartu nahi dutenak. Irungo Mendizaleen berano taldearekin (630



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideak, Baztango Balleko Etxeko atarian.

544836 telefonoa) edo Jose Antonio Arriola Alzugarairekin (*olagarai@outlook.com*) jarri behar da harremanean.

DELEGATU BERRIAK

Delegatu lana eginen duten boluntarioak behar ditu Arkupeak elkarteak. Beran bada lagun bat, baina bertze bat beharko litzateke, baita Zugarramurdin ere. Donezteben, urtetan lanean aritu den Eloina

Martin San Matiassek utzi egin du eta ordezkioa behar da. Elkartetik eskerrak eman dizkiote egindako lanarengatik.

FRANTZIAKO ERRETIROA

Frantzian lan egin dutenek erretiro kontuak kudeatzeko lanean segitzen du Arkupeak elkarteak. Interesatuak Fernandorengana (846 548610) edo Behobia-ko Magaly Goyer-engan jo behar dute (607

778897) hordua eskatzeko.

DATOZEN BIDAIAK

216 bazkide joanen dira uztailaren 30ean Aralarrera. Eguerdiko meza ondotik, Gorraizera joanen dira bazkalatzera eta Jose Angelekin dantzatzera.

Irailean Benidormera eta Arantzazu eta Tenerifera joateko idea dutenek egunotan eman behar zuten izena.

KULTURA → UZTAILAREN 5EAN LESAKAN

Bidasoaldeko Erraldoien Topaketa egin dute lehen aldiz

18 bildu dituzte Beti Gazteren 75.urteurrena ospatzeko

A. AROTZENA

Bidasoaldeko Erraldoien Topaketa antolatu zuen Lesakako Beti

Gazte elkarteak, 75.urteurrenako ekitaldien baitan, uztailaren 5ean. Lesakakoekin batera, Bera, Doneztebe, Elizondo, Etxalar, Igantzi eta Sunbillakoak bildu ziren Harriondoa Kultur Etxean, 18 guztira, eta handik abiatuta kalejirari ibili ziren, plazan bu-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Plaza Zaharrean dantzatu zuten Bidasoaldeko erraldoiek kalejiraren ondotik.

katzeko. Arratsaldean ere ibilbidea egin zuten, Arratzubitik jautsita eta

Onin erreken inguruan ere dantzatu zuten. Etxalarko bi erraldoiek

Zubigainekoa ere dantzatu zuten, Onin erreken petrilera igota.

BERAKO BESTAK 2015

ttipi-ttapa | 643 zk.
2015.07.23

11

UZTAILAK 25, LARUNBATA

16:00 3x3 Saskibaloia Txapelketa Herriko Solidarioa. Toki-Onako patioan (eguraldi txarra eginez gero Toki-Ona kiroldegian). Ateratako dirua Ademgi elkar-tearentzat izanen da.



UZTAILAK 26, IGANDEA

10:30 Txirrindularitza Proba. Berako XII. Saria. Kadete maila. (Ibilbidea: Bera-Lesaka-Bera-Berri-zaun-Bera-Berrizaun-Bera).

16:00 3x3 Saskibaloia Elite Txapelketa. Toki-Onako patioan (eguraldi txarra eginez gero, Toki-Ona kiroldegian. Izen-ematea 15:00etatik aitzin).

UZTAILAK 27, ASTELEHENA

20:00 Gaztefolk Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia. Herriko Etxeko plazan. Parte hartzaileak: Selenga (Buryatia), Zornica (Eslovakia) eta Eraiki Dantza taldea (Irun, Euskal Herria).



UZTAILAK 31, ORTZIRALA

13:00 San Jose zahar etxeko familia bazkaria. **19:00 Txoznen irekiera.** Pre-goia, Gazteebanen igoera, bertsoak eta auresku herrikoia. **19:30 Kontzertua: Joseba B. Lenoir Gang** Altxateko plazan. **20:00 Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia** Herriko Etxeko plazan. **00:00 Lloba,** ikus-entzunezko ikuskizuna Altxateko frontoian. **Ondotik** Kalera! taldearen kontzertua.

ALZURI
ETXERAKO EDERTASUNA
ASTONDOA

Ongi pasa bestak!

DROGERIA • MENAJE DENDA ESPEZIALIZATUA
948 625 442 • San Esteban 17 • BERA

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

Itsasoa hurbilago!

ONGI PASA BESTAK!

amalein
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Cava de Puros

Ongi pasa bestak!

Plaza Urutia 1, bajo (Aguerra)
31780 Bera
Tel. 948 631 637
Fax. 948 631 654
estanco3@estanco3.e telefonica.net

Goieko **DESINBERA**
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK

Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzor garbitu nahi baduzu deitu! Termila eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arturo

Ongi pasa bestak!

Altxate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



B E R A

Berako udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue

**GORA BERAKO
BESTAKI!**





Aitzinaldeak, angeluak, pareta aitzinekoak
leihoak, atek, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlaizak, moldurak
zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
lrungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Ongi pasa bestak!

Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net



TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alasta, 4 • Tel: 948 630 373 • BERA



948 630 451

ONGI PASA BESTAK!

Illekueta, 1 • 31780 Bera • Nafarroa



ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982



Iker Albisu Altolagirre
Mediku Ginekologoa (Kort. 2004. 449)

Iturlandeta, 3 behe ezkerri
31780 Bera (Nafarroa)
Tel. 948 631 631



ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 7etik HASITA
948 631 017



ONGI PASA BESTAK!

Sara karrika, 7 • Agerra auzoa • BERA



Altzate, 32 • BERA
Tfnoa: 948 630 515
Mugikorra: 609 663 172
fotogoiko@fotogoiko.com




**HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA**

Ongi pasa bestak!

T. 639 103 305 • BERA



Churrut hoteleko jatetxea (LENKONEA)

BERAKO BESTETAKO DASTATZEKO MENUA
(Plater hauek guztiak sartzen dira menuan)

Itsasoa eta lurra entsalada (txipiroiak, perretxikoak eta almejak),
Txangurruz beteriko krepea, saltsa amerikarrarekin,
Legatza plantxan saltsa berde berezi eta gari-zainzuri kurruskariekin,
Masaila eta patata milorria Pedro Ximenez erara,
Kremazko tututxoak txokolate beroa eta limoi-izozkiarekin.
Ardoak: Nafarroako JD, kafea eta BEZ barne.

PREZIOA: 30,00€
T. 948 625 540 / **948 625 542**
Foruen plaza | BERA
www.hotelchurrut.com




OSTATUA - JATETXEA
Menua | Karta
KAFETEGIA • OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA
Besta zoriontsuak igaro!

Ibardingo gaina | BERA
Tel.: 0034 948630729



**AHOLKULARITZA
FISKALA KONTABLEA**

**ASESORIA
FISCAL CONTABLE**

Rafa Pombar Sainz
Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)
tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55
e-mail asesoria@ugaldea.com

BERAKO BESTAK 2015

ttipi-ttapa | 643 zk
2015.07.23

13

ABUZTUAK 1, LARUNBATA

16:00 Plater tiroketa, foso modalitatean. Bera eta kanpotik etorritako tiratzaileen txapelketa. **18:30 Herri kirol jaialdia** Toki Onako patioan (eguraldi txarra eginez gero Altzateko frontoian). **Ondotik** Emakumeen harri tiraketa **20:00** Elkartasun kalejira Mukixutik Altzateko plazara. **20:30** Kontzertua Olaia eta Pitxi, Altzateko plazan. **22:00** Berako II. Gau Lasterketa **00:00** Perlak eta Pottors eta Klitto taldearen kontzertua Altzateko plazan. (Besta busa zerbitzua izanen da).



ABUZTUAK 2, IGANDEA

12:00 Altxaferoa eta ezkil-jotzea. Aldi berean, tikiendako goxokiak. **Ondotik Erraldoiak eta buruhandiak** karrikaz karrika, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **14:30 Herri Bazkaria** Herriko Etxeko plazan **16:30 Plater tiroketa**, minifoso modalitatean. Bera eta kanpotik etorritako tiratzaileentzat. **17:00** Herriko pilotarien **pilota partidak**: benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. **17:00** Ezpelur gaiteroak San Jose zahar etxean. **18:00 Kuadrilen jautsiera** plaza-tik plazara. **18:30 Kukaña** Illekuetan, Incansables Txarangak alaiturik. **Gero** Afizio-natuen pilota partidak, Eztegara pilotalekuan. **19:00** Berako txistularien kalejira Illekuetatik herriko plazara. **19:30** Petti & etxeko uzta Altzateko plazan **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertua Pelax eta Txixirekin Altzateko plazan. **Egunean zehar** Incansables Txaranga karriketan.

Artieda M.
LENTZERIA • MERTZERIA
ONGI PASA BESTAK!!
Kanttonberri 2 • BERA • 948 625 411

BERATARRA
ERAIKUNTZAK
ONGI PASA BESTAK
Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE
Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK!
BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA
etxerako behar duzun guztia
PENTSUAK • FORRAJEAK • LANDAREAK • ABONOAK • PLASTIKOAK
FITOSANITARIOAK • PATATA HAZIAK • BOLOEN PLASTIKOAK
BASERRIRAKO TRESNERIA... etxeko zerbitzua
Zalain ind. 5 • BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

GORA SAN ESTEBAN!
borzrudo
INPRENTA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

besta zoriotsuak opa dizkizuegu
Botxo
T. 948 630 052 • Zalain Auzoa. Bera

elika
Dietetika eta elikadura
ONGI PASA BESTAK
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behe 31780 BERA
t. 948 631 283 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

Kulturkari
diseinugrafia, ilustrazioak
ttipi-ttapa
Tel. 948 635458
kulturkari@ttipi.eus
Logotipoen diseinua
Tarjeten diseinua
Triptikoak, foiletoak, karpetak,
gutunazalak, fakturak...
Kartelak, egutegiak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut eta Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
T. 948 630 018

ongi pasa bestak
ELKAR
liburudenda
Testu liburua
Aldizkariak eta prentsa
Escolako materiala
Fax zerbitzua eta fotokopiak
Eztegara, 18 • T. 948 630 691 • BERA

ONGI PASA BESTAK!!
Garbi ogi & coffee
KAFETEGIA - OKINDEGIA
• TERRAZA
• IZOZKI BEREZIAK
• ETXKO BATIDOAK
• APERITIBOAK (pintxoak, ardoak, garagardoa...)
• GLUTEN GABEKO PRODUKTUAK
• TARTA ETA PASTEL FRESKOAK ENKARGUZ
Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673
07:30-13:30 / 17:00-21:30era.
Asteazken arratsaldetan itxita.

BAZAR FELI (The Cotte)
Kanttonberri, 5 • BERA | T. 948 625 285
Ongi pasa bestak!



BIOK

**SUPERMERCADO • SUPERMARCHÉ
SUPERMERKATUA**



DANTXARINEA

Ctra. Pamplona - Francia, km 85
31712 Dantxarinea
NAVARRA
T: 0034 948 599 093
F: 0034 948 599 391

IBARDIN

Alto de Ibardin, 28
31780 Bera
NAVARRA
T: 0034 948 630 707
F: 0034 948 631 111

VALCARLOS

Barrio de Ventas, s/n
31660 Valcarlos
NAVARRA
T: 0034 948 790 179
F: 0034 948 790 178

www.ventabiok.com

BERAKO BESTAK 2015

ttipi-ttapa | 643 zk
2015.07.23

15

ABUZTUAK 3, ASTELEHENA

09:30 Herriko txistulariekin diana; Ezpelur gaiteroak herrian barna. **10:30** Udalbatza, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. **Ondotik** Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek **Berako Makil dantzak eta Bordon dantza** dantzatuko dute txistularien laguntzaz. **Ondotik** Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre bertsolariek kantatuko dute. **13:00** Ezpelur gaiteroak Ibadinen. **17:00** Incansables Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak **Berako Aurrekua** dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan txistularien laguntzaz. **Ondotik** **Berako Bandaren kontzertua** Herriko Etxeko plazan. **21:00** **Dantza herrikoia** Altxateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Dantzaldia Saltoka Taldearen eskutik Altxateko plazan.



ABUZTUAK 4, ASTEARTEA

09:00 Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak Dornakun, Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan eta Irats taldea Suspeletikin. **11:30** Berako igerilekuan **haur eta gazteentzat XXVIII. Igeriketa Txapelketa**. **12:30** Erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin Agerran. **13:00** **Kukaña**, Illeketan. **14:00** Gaztetxe bazkaria Altxateko plazan. **17:00** Incansables Txaranga San Jose zahar etxean. **18:00** **Pilotari profesionalen arteko partidak** Eztegar pilotalekuan. Aspeko punta-puntako pilotariak. Sarrerak 25 eurotan Agara prentsan eta Zalain jatetxean. **18:00** **Haurrentzako ikuskizuna** eskolako pilotalekuan: *Ttikittaka irratia*. **19:30** Migattuak Herriko etxeko plazan. **21:00** Dantza herrikoia Ezpelur Gaiteroekin Altxateko karrikan. **Ondotik** **Suzko zezena** Altxateko karrikan. **00:00** Kontzertua: Batu eta Frikun Altxateko plazan. **Egunean zehar** Incansables Txaranga karrikaz karrika.

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi
pasa
bestak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

ERREKALDE

PLATER KONBINATUAK

OSTAUA

PINTXAK

BOKATXAK

Ongi pasa bestak!

TFNOA: 948 630 259 BERA

GANIX

Taller



FIAT zerbitzua

948 63 06 69

Hurlandeta, 6

BERA (NA)

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

ERROTAZAR



Eztegara, 3 • BERA • T. 948 630 088 • F. 948 631 057
info@errotazar.net • www.errotazar.net

froling



Alemanian
gehien saltzen
den egurrezko
galdara

Etorri gure erakusketa ikustera:

Bidasoa Karrika, 45 - BERA

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA

686 23 52 30 - patximutu@hotmail.com



ilaia
ileapaindegia
T948 63 14 27

ONGI
PASA
BESTAK!

Pinturas  **Pikabea**
Molinera

T. 948 630 240 • M. 627 622 333

ONGI PASA BESTAK!

Prezio eskaintza zabala esmalte eta pintura plastikoetan
2.000 kolore desberdin lortzen dituen makina

Aurrekontuak konpromisorik gabe, fatxada, komunitate eta etxebizitza partikularretan

Zalain auzoa (Zalain Transformados fabrikaren parean) • BERA

SEGUROS BILBAO *Ongi pasa bestak!*
Grupo CATALANA OCCIDENTE
ie Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza
Kanttonberri, 1 • BERA • 948 631 169 • Faxa: 948 630 385

ONGI PASA BESTAK!
ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN
T./F. 948 631 430 • M. 607 890 923 • 607 890 966
Jaialdiak bere bilakaera izan du urtez urte. Hasieran rock taldeak nagusi baldin baziren ere, azken urteotan



UTZITAKO ARGAZKIA

Hogei urteotan Arantza Rock iragartzeko argitaratu diren kartel gehienak.

ska, trikitixa, reggae eta bertzelako musika estiloetako taldeek ere parte hartu dute.

BALDIN BADA, SUTAGAR ETA EH SUKARRA

Eta agudo ailegatu da aurtengo edizio zinez berexia ere. Abuztuaren 22an lehen-dabiziko urteko kartela errepikatuko da. 1995eko hiru taldeak, Baldin Bada, Sutagar eta EH Sukarra berriz ere Arantzara etorriko dira eta aldi honetan, plazako eszenatokira igoko dira. Aipatzekoa da Baldin Bada urte aunitzen ondotik berriz ere elkartu egingen dela kontzertu honetarako, 1996an jo baitzuen taldeak be-

re azken kontzertua.

Gazte Asanbladatik egunaren antolaketa laguntzeko deia egin dute. Prestaketetan edo egunean bertan lagundu nahi izanez gero, aski da antolatzaileretara jotzea. Denentzat zer egin izanen da: boletoak eta kamisetak saltzen, kartelak Euskal Herriko xokoetara zabaltzen, txosna eta eszenatokia montatzen, txosnan turnoak eginez, sarreren salmentan... Ekonomikoki ere ekarpena egin daiteke. Aurtengoan talde handiak direnez, aurrekontua ere goiti joan baita.

Aitzineko urteekin konparatuz aldaketa bat izanen da aurtan. Gas-

tuari aitzin egiteko sarrera paratuko da herri sarreran. Honela, herri- sartzan den guztiak 10 euro ordaindu behar-ko du. Herritarrak bertan egonagatik ere, pul- tsera formako sarrera hori erosteko deia egin dute antolatzailerak. Ho- ri lortzeko, bestak pa- satu baino lehen sarre- ra borondatearen truke eskuratu ahal izanen da, edozein gazte asanbla- da-kiderengana hur- bilduz. Besten ondotik sarrera 10 eurotan es- kuragarri izanen da. Guztion ahalegina be- harrezkoa eta eskertze- koa izanen da! Izan ere, denon artean, elkarre- kin eta elkarlanean, de- na aisago egingen da.

FRANCOIS
BRANDONEA, S.L.
FABRIKAZA DE BARRAJAS
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasaia, 76 - atea 21-22
31780 BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapi.eus

"TELLETXEA"
Lorazaintza
- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -
John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

ttipi-ttapa
DISEINU GRAFIKOA
Komunikazio elementuak garatzen ditugu:
IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •
ARGITALPENAK
Aldizkariak, Katalogoak, Bestelako Programak, Folletoak, Liburuak, Mapak...
BERTZE EUSKARRIAK
Boletoiak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak...
EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK
LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.net www.kulturkari.com

IGANTZI

BORTZIRIAK

GIZARTEA → UZTAILAREN 17AN

Maizter berriekin berriz ere ateak ireki ditu Herriko Ostatuak

Orain ezin da igerilekura tragoa edo bazkaltzera doan sartu, sarrerarik ordaindu gabe

TTIPI-TTAPA

Igantzik Herriko Ostatuak, La Villak, bere ateak ireki ditu berriro. Uztailaren 17an maizter berriek bere bide berriari hasiera eman zioten, eta honetarako lehendik lan batzuk egin dituzte: altzariak aldatu eta berritu, paretak margotu, zuhaitzak kimatu, itxura berritu eta bertze lanak.

Besta ttiki batekin hasi ziren: txokolatada haurrentzat arratsaldean, gero Armiarma eta Pompom taldea, gero luntxa izan zen eta ilunabarrean Eneritzen kontzertu akustikoa. Ederra izan zen dena.

Ea lana egiten duten eta gure herrian berriz taberna batez gozatze-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskolako ikasle eta irakasleek atondu duten liburutegia orain herritar guzientzako zabaltzeko asmoa dago. Nola, uztailaren 30eko bileran erabakiko da.

ko izaten dugun!!

Egun horretatik aitzinera, uztailaren 17tik, alegia, jada ezin da igerilekuetara tragoa edo bazkaltzera doan sartu. Orain berriz, bertara sartu nahi duen orok sarrera ordaindu behar du. Salbuespen bakoitza Herriko etxeak libre hartuko duen egu-

na izanen da: astelehenetan.

Auzolanak

Bertzaldetik, eta auzolanei esker, herriko txoko batzuk itxura aldatzen eta hobetzen ari dira: San Juan Xar, Herriko etxea, errepideetako marrazkiak, eta bertzelakoak. Horrela ja-

rraitu eta gure herria ezin hobe kontuko dugu!!

Liburutegiko lana

Liburutegian lan egiteko izena eman zutenek uztailaren 30ean biler bat izanen dute. Bertan, lanaz egin izanen den eta nola egin behar duen Joxeanek azalduko die eta liburu-

ABIZTU HASIERAN

Jabe-gabetzeaz Nazioarteko I Jardunaldiak Lesakan

TTIPI-TTAPA

Jabe-gabetzeaz Nazioarteko I. jardunaldiak egingen dituzte abuztuaren 4tik 9ra Lesakan Matxinbeltzean. Hiru mintzagai nagusi izanen dituzte: Partaidetza prozesuak orokorrean, hezkuntzaren jabe-gabetzea eta eskola eta hezkuntzaren jabe-gabetzea. Ez da beharrezkoa saio guztietara joatea, bakoitzak aukera dezake zein etara joan. Parte-hartzea doakoa da eta izen ematea ez da beharrezkoa, baina komeni da jakitea bazkaltzera eta lotara zenbat geldituko diren jakiteko (ilusionistasozialak@gmail.com). Seguruenik jazz kontzertua ere antolatuko dute.

tegia noiz irekiko den denen artean erabakiko dute. Bilerak Igantzik Eskolako liburutegian izanen da, uztailaren 30ean arratsaldeko 8etan. Udaletxetik dei bat egingen zaie data orotarazteko.



ZALDI
FERRATZAILEA
625 704 419



HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

GIZARTEA → UDARAKO DENBORA-PASA

Ingelesa lantzen eta jolasean ari dira ttikiak bi ludotekatan

Guraso
Elkarteak
antolatu ditu
aurten ere

Maidar PETRIRENA

Aurreko aleetan aipatu bezala, aurten ere, Guraso Elkartek ludotekak antolatu ditu. Ttikienezat ludoteka ttikia, eta lehen hezkuntzakoentzat, berriz, ludoteka ingelesez. Azken honetan robota eta superheroiak lantzen ari dira argazkian ikusi daitekeen bezala.

Ttikiak, berriz, jolasean eta eskulanak eginen ari dira.

ARGAZKIAK: RAKEL ORDOKI ETA
ITSASO ARRIETA

Ingelesko udalekukoak
superheroiak lantzen eta
udaleku ttikikoak.



Pertsonaia

Salma AHMED ELBU

Sahararrak
azken uda
eginen du gurean

Aurreko aleren batean ere aipatu genuen azken 6 urteetan Sunbillara Salma Ahmed Elbu sahararrara etortzen zaigula bisitan. Salma Izaskun Alzuri Arretxearen etxera etortzen da. Pena handiz baina aurtengo uda izanen du bere azken uda Sunbillara etortzen. Abuztuaren 26an joanen zaigu Salma sorterrira itzulian. Uda berezia izatea berarentzat espero dugu eta ongi ongi pasa dezala bere herria den Sunbillan.



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Mus tximista txapelketa arrakastatsua Ariztigain kanpinean

Ariztigain kanpinean lehenengo Mus Tximista antolatu zuten uztailaren 4an. Guztira 50 bikotek parte hartu zuten eta musean jostatzeko aukera ederra izan zuten arratsalde osoan. Lehenbiziko saria (320 euro eta txapela) Jose Angel eta Fernandok lortu zuten; bigarrena (160 euro eta afaria) Jon eta Joseanek; hirugarrena (80 euro eta ardoa) Angel eta Josunek eta laugarrena (40 euro eta ardoa), Arriola eta Arrietak. Bosgarrenetik zortzigarrenera sailkatuek ere 20 euro eta ardoa eraman zuten eta 9-16 postuek ardoa.



ARGAZKIAK: MAIDAR PETRIRENA

Lesakako Erraldoien Topaketan

Bidasoaldeko Erraldoien topaketa Lesakan ospatu zen uztailaren 5ean. Eskualdeko 18 erraldoi elkartu ziren, horien artean Sunbillako biak. Harriondo kultur etxetik abiatu eta bukaera herriko plazan egin zuten. Erraldoi guztiek batera dantzatu ondotik, Irubiden elkartu ziren bazkari eder batean.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → 0-3 URTEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

Askin Haur Eskolak ateak itxiko ditu irailera arte

Uztailaren 14an familiekin ospatu zuen ikasturte bukaerako besta

Marga ERDOZAIN

Askin Haur Eskola-ko protagonista guztiak; umeak, familiak eta eskolako lantalde osoak ikasturtea agurtu zuten besta polita eginez. Bertan, gurasoek ekarritako janaria eta eskolako patioa gozatzeko gunea bihurtuz, burutu zen ospakizuna. 0-3 urteko hezkuntza proiektua burutzen duen lan talde osoak arras balorazio ona egin du aurtengo ikasturteaz eta azpima-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasturtea agurtzeko ospakizun polita egin zuten Haur Eskolakoek uztailaren 14an.

rratu nahi du familiak bere konfiantza eta parte-hartzearekin eskolaren protagonista bilakatzen direla, egunerokotasunaren parte izanda. Hilabete bat eta

erdiz eskola umerikgabe egonen bada ere, ikasgelak attoko-attoko prestatuko dira heldu den ikasturtean umeei ongi etorria emateko. Aurtun Askin es-

kolak hiru modulu izan ditu eta une honetan 2015-16 ikasturterako bi aurreikusten dira, nahiz eta 3. martxan paratzeko aukera oraindik zabalik egon.

GIZARTEA → BAITA UDALEZ GAINDIKOAK ERE

Lau urteotan funtzionatzeko egiturak martxan jarri ditu Udalak

9 zinegotzigo izanen dira, orain arte baino bat gehiago

M. ERDOZAIN

Udal berriak dagoeneko lau urte hauetan gidatuko duen egitura osatu du. 9 zinegotzi edo kontzejalez osatutako udala izanen da, orain arte zortzi ziren: Mendia eta Zaborra; Tokiko garapena; industria, merkataritza eta tu-

rismo; Kultura, Hezkuntza eta Euskara; Kirola eta Ospakizunak, Hiri-gintza, Ogasuna eta kontuen batzorde iraunkorra, Herri-lanak, argia eta ura; Herritarren Parte-hartzea eta Komunikazioa eta Emakumeak, Berdintasuna, Ongizatea eta Osasuna. Bakoitzak arduradun bana izanen du eta EH Bilduren izenean hiruna ordezkari eta bana PSN-aren izenean. Batzordeak ere martxan paratuko ditu udalak herrita-

rraren parte-hartzea eta ekarpenak biltzeko.

Munizipalak ez diren organoak ere martxan dira: Mankomunitatekoak (Garapena, Euskara, Zaborra eta Gizarte Zerbitzua); Mendaur Ura, Babes Ofizialeko Pisuak, Lau Herritakoa, Cerderna, Agorreta Musika Eskolako patronatua; Mendaur eta San Miguel Ikastetxeak, Askin Haur Eskola, Osasun Zentroa, Udal Federazioa... Egitura honekin udalak eguneroko

jarduerari heldu nahi dio eta, lehenetsunak ezarrita, lau urteotan hautetskunde-programan ezarritako helburuak eta erronkak betetzeko konpromisoa abiatu nahi du. Udazkenerako heldu den urteko aurrekontuak prestatzen hasiko dira eta ordurako hainbat erronka gauzatze-ko prestaketa lana dagoeneko burutzen ari da: kultur agenda, adineko jendearentzat gimnasia tresnak, mantentze-lanetan...

FLASH

EGA ikastaroa abuztuan

Aurtun ere IKA euskaltegiak EGA ikastaroa antolatu du abuztuaren 10etik irailaren 4ra. C1 eta EGA prestatzeko ikastaro hau era presentzialean edo online edo autoikaskuntzaren bidez egiteko aukera izanen da. Interesatuak bertako euskaltegitik pasatzen ahal dira edo 948 451555 telefonora deitzen ahal dute. Apuntatzeko epea uztailaren 31n akituko da.

Oporrak pasatzeko modu aunitz

Sanpedroak pasatuta herritar anitz oporretara joaten dira. Denon helburua ongi pasatzea eta pilak kargatzea da. Hainbat herritarrek aukeratu duten opor sorta bat: Gorka Bidegainek Altriman proba arrakastarekin burutu du; Ana eta Xanti Dolomitetan, *Marizku* Austriako Tirolean... Ber- tze batzuk Andaluzian barna, Mexikon, Noruegan... Baina etxetik ateratzen ez direnak ere udaz gozatzeko aukera izanen dute bertan dauden aukeraz baliatuz. Gurera ere oporrak pasatzera heldu direnak ongi etorriak izanen dira: Saharatik etorritakoak, turistak, txirindulariak, udalekuetako gazteak... udaz gozatu eta pilak kargatu heldu den ikasturtea gogotsu hasteko.

Erreka dantza taldea Bilbon

Erreka dantza taldeak emanaldia eskainiko du Bilboko Euskalduna Jauregian irailaren 26an eginen den *Bilbo kantuan* jaialdian.

KIROLA → ABUZTUAREN 9AN

Bortz aizkolari bikotek jokatuko dute XIV. Ramon Latasa Saria Sunbillaan

Xanta Sousa
40 kiloko
txingekin eta
Felix Etxeberria
eta Iker
Vicenteren
arteko lehia ere
izanen dira

TTIPI-TTAPA

XIV. Ramon Latasa aizkora saria jokatu da abuztuaren 9an, igande arratsaldeko 7etatik aitzinera Sunbillaan udal pilotalekuan. Momentuko 10 aizkolari onetsuenak, bortz bikotetan ariko dira eta bakoitzak hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako moztu beharko ditu: Floren Nazabal eta Ander Erasun, Aitzol Atutxa II eta Ugaitz Muger-



ARXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean txapeldun izan ziren Atutxa II eta Mugertza bikote izanen dira aurten ere.

tza, Donato Larretxea eta Xabier Orbegoza Arra V, Joseba Otaegi eta Jon Rekondo eta Iñaki Azurmendi eta Joxemari Olasagasti.

Ekitaldi berean, Felix Etxeberria sunbilla, Iker Vicente aizkolari gaztearen aurka ariko da, launa kanaerdiko moztuz. Lesakako

Xanta Sousa txingalaria ere ariko da eta zerbait berezia egiteko asmoa du, 40 kiloko txingak erabiliko baititu esku bakoitzean (norma-

lean 25ekoekin egiten dute konpetizioa emakumeek).

14 EDIZIO

Sunbildarrak 2002. urtean hasi ziren antolatzen Latasa Saria, garai bateko Ramon Latasa aizkolari handia izandakoari omenaldia egiteko helburuarekin. Lehen urtean jende aunitz bildu zutenez, urtero errepikatzea erabaki zuten. Honela, aurten goa hamalagarren edizioa izanen da.

Joan den urtean lehiaketako lana aldatu egin zuten, lan luzea jarri eta hamar aizkolari onenek parte hartu zuten, bortz bikote osatuz. Antolatzaileak gus-tura gelditu ziren jasotako erantzunarekin eta aurten ere gauza bera egiteko asmoa dute.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Udako merkealdia

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

BEINTZA-LABAIEN

BESTAK → UZTAILAREN 31TIK ABUZTUAREN 3RA

Aizkora saioak eginen dituzte bestetako larunbat eta astelehenean

Hondar eguneko herri bazkariaren ondotik, kantu zaharrak abestuko dituzte Angel Mariezkurrena gidari dutela

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatu dituzte Beintza-Labaienen. Beti bezala, ekitaldiak txanda-ka eginen dira, egun batean Labaienen eta hurrengoan Beintzan:

ORTZIRALA, UZTAILAK 31 (LABAIEN)

- 20:00etan altxaferoak, beste hasiera emateko.
- Ondoren karrikarronda herriko trikitilari-ekin
- 21:00etan zopak, Iturrrondo elkartean eta Labaiengo ostatuan
- Gauetz dantzaldia DJ Txingudiren eskutik.

LARUNBATA, ABUZTUAK 1 (BEINTZAN)

- Goizean karrikarronda herriko trikitilari-ekin.
- 11:00etan: Plater-tiroketa.
- 12:00etatik 14:00etara: Puzgarriak eta Wii.

- 16:00etatik 18:00etara: Puzgarriak eta Wii jokoa.
- 19:30ean aizkora apostua: Donato Larretxea eta Xabier Mingegia; Joxe Mari Olasagasti eta Jexux Etxeberria eta Floren Nazabal eta Miguel Angel Etxeberria.
- Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Trakets taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 2 (LABAIENEN)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Aizkora eta dantza saioak izanen dira aurtien ere bestetan.

- 11:30ean Meza nagusia.
- Ondotik, dantzariak eta gero LUNTxa.
- 17:00etan Mus Txapelketa.
- 16:00etatik 20:00etara karts eta puzgarriak.
- 21:00etan Tortilla eta postre lehiaketa.
- 22:30ean suak.

- Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Joxe Angel soinulariarekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 3 (BEINTZAN)

- Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin.
- Eguerdian: Heritarren arteko aizkora apostua.

- 14:00etan: herri bazkaria. Ondoren, Kantu zaharrak Anjel Mariezkurrenaren eskutik.
- Bazkal ondoren, karrikarronda Iturengo txistulariekin
- Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Joxe Anjel soinulariarekin.
- 24:00etan "Gaixoa ni" bestak bukatzeko.

BEINTZA-LABAIENGO UDALAK

Besta onak opa dizkie herritar eta bisitari guztiei

LABAIENGO Herriko Ostaturia

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 811

ORBELA

SENDERISMOA ATERPETXEA

Ongi pasa bestak!

Idoia - Mikel | T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberquesnavarra.com | www.beintza-orbela.com

BALEZTENA

janaridenda

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 044
Antsolantzena
BEINTZA-LABAIEN

BESTAK → ABUZTUAREN 1ETIK 4RA

Santo Domingo bestak ospatuko dituzte abuztuko lehen egunetan

Astelehenean herri bazkaria eta egun handian Meza Nagusia izanen dute

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko Santo Domingo bestak antolatuko dituzte Gaztelun, abuztuko lehen lau egunetarako.

LARUNBATA, ABUZTUAK 1 HAURREN EGUNA

- 10:00etan kalejira.
- Goizez eta arratsaldez jokuak eta puzgarriak.
- 20:00etan suziriak eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 21:00etan Zopak Herriko Ostatuan.
- Gueuz dantzaldia Puerto Relajo taldearekin.

IGANDEA, ABUZTUAK 2

- 10:00etan kalejira.
- 13:00etan aizkora apostua. Donato Larretxea-Itxaso Onsallo; Felix Etxeberria-Nerea Sorondo.
- 17:00etan mus txapelketa.
- 19:00etan txokolatada.
- Arratsaldean dantzaldia Agerralderekin.

ASTELEHENA, ABUZTUAK 3 BEZPERA

- 09:00etan gosaria.
- 10:00etan kalejira.
- 11:30ean jokoak.
- 14:00etan herri bazkaria.
- Arratsaldean eta gauean dantzaldia Agerralderekin.
- 22:00etan xingarrada.

ASTEARTEA, ABUZTUAK 4 SANTO DOMINGO EGUNA

- 10:00etan kalejira.
- 11:00etan Meza Na-



ARGAZIAK: MAIALEN MITXEOK UTZIAK

Plazan nahiz ostatuan izanen da dantatzeko eta kantatzeko aukera.

gusia eta ondoren salda Herriko Ostatuan.

- 17:00etan partxis txapelketa.
- Arratsaldean dantzaldia Agerralderekin. Eta ondoren, Gaixoa Ni...



Gazteluko Ostaturia

- MENUAK ENKARGUZ
- PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK • RAZIOAK

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 105

TXARUTA, S.L.

Ongi pasa bestak!

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

BIOMASA INSTALAZIOAK

KOMUNAK | SUKALDEAK
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK
AEROTERMIA
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825
@. txarutas@yahoo.es

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ZUBIETA

KIROLA → MENDI BIZIKLETAN

Mikele Etxekoloneak Espainiako txapelketan parte hartu du

Kadete mailako Nafarroako selekzioarekin aritu da 15 urteko neska txirrindularia

Fermin ETXEKOLONEA

Mendi bizikletan hasia da Mikele Etxekolonea Diez eta orain ibili berria da Murtziako Lorca hirian, Espainiako txapelketan. Nesketan

bera bakarra da kadete mailan, Nafarroako selekzioan aritzen dena. 15 urte ditu Mikelek, eta aipatu digunez, esperientzia polita izan da Murtziakoa. Mendirako eta beste kirol batzuetarako zaletasun handia zeukan, baina belauneko arazoak medio, mendi bizikletan hasi zen Seguros Bilbao taldearekin. Mendi bizikletan lehiatzen ari diren mutil franko bada gure inguruan, baina ea



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikele Etxekolonea, eskuinetik hasita bigarrena, Nafarroako selekziozko mutikoekin batera.

neska gehiago ere animatzen diren!

Mikel Indakoetxea bigarren mailako aizkora txapelketan

Kirolarekin segituz, aizkora kontuak. Iruñeko Sanferminetan, uztailearen 10ean, Nafarroako bigarren mailako aizkolarari txapelketako kanporaketan parte-hartu zuen Mikel Indakoetxea

herritarrak ere. Hamai-ka aizkolarien artean zortzigarren izan zen, beraz, ez zuen finalerako txartelik eskuratu (bost lehenbizikoek lortu zuten), baina ez zuen maila galdu ere (azkenekoa hirugarren mailara jautsi da).

Kinto afaria

Uztailaren 25ean, 1961, 1962 eta 1963ko

kintoek afaria izanen dute Herriko Ostatuan. Jendea animatzeko abisua eman dute.

Auzolanak

Festetarako apaintzen ari da herria. Bi auzolan deitu ditu udal berriak eta eginak dituzte zenbait lan. Emakumeek ere gero eta gehiago hartzen dute parte auzolanetan.

URROZ

GIZARTEA → EHIZA GARAIA GOIZEKO 6:30EAN IREKITZEKO ASMOA DUTE

Herriko Ostata hartu dute errentan berriz ere

Eva Martinek irekiko du aste bat edo biren buruan

Joseba URROTZ

Ostatua errentan hartzeko deialdia egin zen duela gutti, eta honezkerok bada jabe berria. Aste bat edo biren buruan irekiko du

Eva Martinek, eta bere asmoak zein diren aipatuko ditugu.

Ordutegi aldetik, Aste Santuan eta uda garaian (ekainaren 15etik, irailaren 15era) goizeko 11etatik arrats arte irekiko du. Neguan, berriz, astez itxia egonen da, ortziral arratsaldetan irekiko du eta aste-buruan goizeko 11etatik arratsa arte.

Ehiza garaian, Irailaren 15etik azaroaren 30era arte, zerbitzu berezia eman nahi du, goizeko 6:30ean irekiko du eta arratsa arte kontuko du zabalik.

Eskaintzari buruz berriz, eguneko platerak, plater konbinatuak, pizzak, hanburgesak, ogitartekoak, hala nola, oilasko eta paella bertan jan edo eramateko.



ARTXIBIKO ARGAZKIA

Laister irekiko dute berriz ere Herriko Ostata.

Ea dena ongi joaten den eta denbora luzerako ostata zabalik dugu.

rako ostata zabalik dugu.

GIZARTEA → CEDERNA-GARALURREN OHARRA

Bidasoko natur bidean zenbait puntu kaltetuta daudenez kontuz ibiltzeko aholkatu dute

Endarlatsa-
Lesaka bidean
eta Sunbillako
tunelean
bereziki

TTIPI-TTAPA

Iragan neguko euri-
teek Bidasoko natur bi-
deko hainbat tarte la-
rriki kaltetu zituzten; lui-
ziak, bide-zorua altxatu-
ta, zuhaitzak eta lurra
erorita... Tarterik kalte-
tuenak Endarlatsa eta
Lesaka arteko bidea eta
Sunbillako zubi eske-
giaren ondoan dagoen
tunela dira.

Cederna Garalur El-
karteak eta Baztan, Ber-
tizarana, Malerreka eta
Bidasoko Udalak elkar-
lanean ari dira natur-bi-
dea hobetzeko eta bi-
en bitartean, barkame-
na eskatu nahi dute bi-
deak dituen kalte horiek
erabiltzaileei sor diezaz-
kien eragozpenengatik.
Modu honetan, tarte ho-
rietan kontu handiz ibil-
tzea eskatzen dute, uda-
ko hilabete hauetan Bi-
dasoko natura-bideaz
eta eskualde osoaz
gozatzen segitzeko.

Gogoratu behar da
Bera, Lesaka, Igantzi,
Arantza, Baztan, Zubie-
ta, Ituren, Eratsun,
Ezkurra, Beintza-Labai-
en, Urroz, Donamaria,
Oiz, Elgorriaga eta Ber-
tizaranako udalak eta
Cederna-Garalur era-
kundeak elkarlan hitzar-
mena sinatu zutela ekai-
naren 11n turismoa ga-
ratzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zenbait puntu kaltetuta badaude ere, Bidasoko Bide Berdeak hainbat tarte badiu bizikletan ibiltzeko.



GOIZUETA

KIROLA → FINALA UZTAILAREN 4AN IRUÑEAN

Herriartekoan azpitxapeldun izan da Goizueta

Bigarren mailako finalean, lau partidatik bi irabazi zizkion Esteribar-i, baina 8 tanto guttiago

TTIPI-TTAPA

Aspaldiko partez Nafarroako Herriarteko pilotari txapelketan parte hartu du Goizuetak, bigarren mailan eta finalera ailegatzea ere lortu du. Uztailaren 4an Labriten jokatuakotako finalean bina partida irabazi zituzten Goizuetak eta Esteribarrek, baina hauek 8 tanto gehiago egin zituztenez, berai-entzat izan zen txapela eta Goizuetak txapel-dunorde izatearekin konformatu behar izan zuten.

Kimu mailan, Goizuetako Joanes Apezetxea eta Beñat Apezetxeak 4 eta 18 galdu zuten Esteribarko Jabi Murillo eta Soe Lazkoz-en kontra.

Haur mailan, Goizuetako Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxeak 18 eta 8 irabazi zieten Esteribarko Asier Maia eta Ander Beteluri.

Jubeniletan, Goizuetako Iker Salaberria eta Jonni Salaberriak 7-22 galdu zuten Esteribarko Luis Sanchez eta Koldo Gilen kontra eta honenbestez oso zaila gelditu zen finala goizuetarrentzat, azken partid- dan 4 tanto aski baitzituzten Esteribarkoek.

Senior mailan, azkenik, 7-0 eta 12-3 irabazten hasi ziren Goizuetako Oier Apezetxea eta Ekaitz NARBARTETA itxaropena piztu zen zale- en artean, baina Esteribarkoek laugarrena egin zutenean txapela lortu zuten. Halere, 22-11 irabazi zieten goizuetarrek Esteribarko Mikel Iriarte eta Andes Santesteban-i, baina ez zen aski izan, 8 tanto eskas izan zituzten.

Halere, zoriontzekoa izan da herriko pilotari- en parte-hartzea, batzuk urte batzuk baitzeramazkiten zuriz jantzi gabe.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapelketa ederra egin duen herriko pilotari taldea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Meza berria

Jose Antonio Apezetxea herritarrak meza berria eman zuen uztailaren 5ean elizan. Eguna Aurorekin hasi zen eta meza ondotik, aureskua dantzatu zioten bi ilobek. Orain, Uharte-Arakil, Arruazu eta Lakuntzako apeza izanen da.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Karmen bezperako herri afaria giro ederrean

Gau giro bikainean joan zen Karmen bezperako afaria. Tortilla lehiaketan ha- maika aurkeztu ziren eta Garazi Olaizola eta Janire Bakero suertatu ziren txapel- duna, Fernando Goia, Haizea Goikoetxea, Eñaut eta Intzaren aurretik.



AARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Mariatxien kantak eta dantzak herriko plaza betean

Giro bikaina jarri zuten Mexikotik etorritako mariatxiek uztailaren 3an plazan egin eta ETBrako grabatutako jaialdian. Jendetza bildu zen eta askok, kanta- tzeko eta dantzatzeko aukera ez zuten alferrik galdu.

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ospina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak


Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrautza likidoa,
ardoa...)



www.baztangoudala.eus



www.malerrekakomankomunitatea.com



www.bortziriazabor.com



www.ecoembes.com

LEITZA

GIZARTEA → UZTAILEKO BILKURAN

Udal berriak jarduera eta arduren banaketa egin du

Hilabeteko azken asteartean egingen dira udal batzarrak

JM BARRIOLA

Legealdia abiatu du udal talde berriak eta lanean hasi ahal izateko, jarduera eta arduren banaketa egin dute. Uztailean egin zen Udal batzarra eta aho batez onartu ziren erabakiak EH Bildu eta Up-neko zinegotzien botoekin. Hasteko, legealdi honetan batzarrak hileko egitea erabaki dute, hilabeteko azken asteartean 20:00etan. Batzorde informatiboa horrelaxe gelditu da osatua: Hirigintza eta ekonomia arloetako presi-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Udal talde berriko EH Bilduko ordezkariak.

dentea Mikel Zabaleta izanen da. Hirigintza-ren barne; hirigintza, obrak, brigada eta herri babesa eta alderdi ekonomikoan; aurrekontuak, kontuen jarraipena, zergak eta langileak bere gain egonen dira. Mendia eta garapena berriz, Iñaki Zabaletaren ardurapean egonen dira:

Mendia, komunalak, tokiko garapena, ingurumena eta turismoa. Ongizate arloaz berriz Josune Marzol arduratuko da, osasuna eta ongizatea bere gain hartuz. Herrigintzan Oihane Kalderonek jardungo du: Euskera, hezkuntza, berdintasuna, gazteak, kultura, kirola, anizta-

suneta eta herri eragileak landuz. Horretaz gain, Organo Kolegiatuen ordezkariak ere izendatu ziren. Alkateak jaso beharreko ordainsaria ere onartua izan zen eta alkate ordeza eta bigarren alkate ordeza ere izendatu zituzten. Eneko Andueta izanen da alkate ordeza eta bigarren alkate ordeza Markel Azkargorta.

Energia gastuak murrizteko ikerketa

Udalak Goiener energia kooperatibaren laguntzarekin, udal eraikin batzuen gastu energetikoa aztertu du. Azterketa gaian adituak diren hiru ikasle egin dute azken asteetan. Udaletxea, Udal pabillioa, Erleta eskola eta kiroldegia ikertu dituzte



Pertsonaia

Jon KANFLANKA

Sega zorrotz eta gorputza arin

Uztailaren 5ean Azkargorten jokatu zen Nafarroako sega txapelketa eta Jon Kanflanka herritarrek jantzi zuen txapela. Berakoetxea Gorritiarraren aurka, 400 ikusle ingururen aurrean, 200 kiloko alde atera zion. 45 minututan 1.890 belar kilo ebaki zituen. Euskal Herriko txapelketan izanen dira biak.

hain zuzen. Orain, efizientzia energetikoa oinarritzat hartuta, dirua eta energia aurrezteko helburuarekin plangintza bat osatuko dute. Datozen hilabeteetan eta fase ezberdinetan hartuko dira adituek aholkatutako neurriak.

Ba al zenekien?

Hemendik aurrera Leitzako 14 komertzio hauetan Ttipi txartela erabiltzeko aukera izango duzula. Beraz badakizue, herrian erosterakoan eraman ezazue zuekin txartela!



ARESO

GIZARTEA → UZTAILA ETA ABUZTUAN

Herriko ttikienak udako ludoteka zerbitzuaz ari dira gozatzen

Irantzu eta Lorea dira begiraleak

Juana Mari SAIZAR

Hasi dira herriko haurrak udako ludotekan. Irantzu Alustiza eta Lorea Onsalo ari dira aurten begirale lanetan eta beraiekin ariko dira goizero ekintza desberdinak egiten, hala nola, maskarak, mendi irteerak, urjolasak... aurten-

go udan ere ez dute aspertzeko denborarik izango.

Herriko festak noiz iritsiko esperoan

Festei begira jarri eta herritarrek, bakoitza bere modura, prestaketak egiten hasi dira. Pesta Batzordeak ia guztia lotuta dauka jadanik eta egitaraua ere prest dago. Antzerki taldea ere hasi da duela gutxi bukatu duten antzezlan



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Argazkian psikomotrizitate saioa egin ondoren ageri dira.

berria ensaiatzen. Gidoia ikasi, ensaiatu... berriro ere herritar eta bisitarie ongi pasarazteko gogoz dira. Haurrak ere herriko ingurutxoak ikasi edo errepasatzeko ensaioak hasi dituzte. Saioa Alustiza eta Ane Baraibar ari zaizkie irakasle lanetan. Herriko dantza taldea ere astean bitan elkartzen da

azken hilabeteetan eta horrela denek beren aletxoa jarriko dute ondoren festetan.

Itxaso hirugarren Iruñean

Itxaso Onsalo herritarrek Nafarroako trontza txapelketan hirugarren postua lortu zuen Xantabikoteizanda. Saio ederra egin zuten uzta-

ilaren 8an eta irten ziren bikote guztien artean lehendabiziko postuan ari ziren bukaeraraino. Beraien saioan 10 korte egin behar zizkieten enborrari eta 9. kortera arte nagusi izan ziren. Nahiz eta bukaeran hirugarren geratu. Zorionak biei, ikusten da egindako lanak saria izaten duela eta jarraitu lanean!

ARANO

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 25EAN

Santio eguneko egitarauan aldaketak

Ordutegiak aldatu eta ekitaldi gehiago jarri dituzte

Ainhua ANSA

Aurreko aldizkarian aurreratu genizuen santiotako egitaraua baina aldaketa batzuk izan dira geroztik. Lehendabi-

ziko egunetako ekitaldiak bere horretan mantentzen diren arren, uztailaren 25eko egitaraua osatu eta ordutegian ere zenbait aldaketa egin ditu festa batzordeak.

Hasteko, **umeen arteko pilota partida**, 11:30ean izanen da, 12:00etan beharrean.

Aizkora apustua ere arratsaldean jokatzekoa zen baina azkenean bazkalondoan izanen



ARGAZKIA: AINHUA ANSA

Hirugarren herrigintza eskola arrakastatsua

Uztailaren 11n egin zen hirugarren herrigintza eskola eta neska-mutiko talde polita bildu zen. Kamiseta tailerra antolatu zuten eta Pino Vicedo eta Nerea Aierbe herriko bi artisauen laguntzarekin kamisetak apaintzen primeran pasa zuten.

da. 13:00etan hasiko da norgehiagoka. 16:30 aldera **umeentzako jolasak** antolatu dituzte eta 17:30ean Arno ga-

nadutegiko aziendak izanen dira plazan.

Herri afaria girotzeaz berriz, Astiazaran anaiak eta Andonegi tri-

kitilariak arduratuko dira.

Mezak uztailaren 25ean eta 26an izanen dira 11:00etan.

BAZTAN

GIZARTEA → ASTEARTETIK IGANDERA EGUNERO

Bisita antzeztuak eskaintzen dituzte Iruritako Jauregian

Teatro Que Madura taldearen eskutik

TTIPI-TTAPA

Iruritako Jauregia dorretxea bisitatzeko aukera berri bat zabaldu du Jauregiak, Jau-regiarte Taberna kulturalak eta Teatro Que Madura antzerki taldeak. Asteartetik igandera, egunero eskaintzen dituzte bisita antzeztuak 19:00etan.

Liburutegi beltza

Aurten ilbeltzan egin-dako Euskal Nobela beltzaren Astearen baitan, euskaraz idatzitako eta euskararat itzultako liburuen erakusleioa antolatu zuen ekimenak, argitaletxe desberdinek utzitako liburuekin. 100 bat liburu-ko bilduma osatu zuten

orduan eta orain Baztango irakurle guztiekin partekatu nahi dute. Horretarako, Arizkungo medikuaren etxean paratu dute liburutegi beltza. Nahi duen guzientzako eskuragarri dago, 637 413858 telefonora deituta.

Egur loteak

Urtero bezala, Udalak egur loteak eskatzeko epea ireki du. Iaz bezala, aurten ere, egur lotea etxera eramateko zerbitzua eskainiko dute. Egur lotea eskatzeko epea abuztuaren 31ra arte egonen da zabalik. Lotearen prezioa 12 eurokoa da eta prezio horretan, norberak



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

Saharako hurrei harrera

Udalak harrera beroa egin die eskualdera uda pasatzera etorritako haur sahararrei eta haien etxeetan dauden familiei. Urtero bezala Saharaztan Elkarteari esker haur hauek gure inguruan bi hilabeteko egonaldia pasatzeko aukera izaten ari dira.

bota behar du egur lotea eta bakoitza arduratzen da bere arbolak menditik ateratzeaz eta garraiatzeaz.

Baina iaiztik aitzine-
ra, bigarren aukera ere bada. Enpresa bat arduratzen da lan horietaz eta egur lotea (enborrak) etxera eramateaz. Kasu honetan, interesatuek 522 euro inguru (BEZ barne), ordaindu beharko dute.



Ba al zenekien

Transbidasoa-Euromaster txirrindulari taldearentzat denboraldiko lehen garaipena Ion Zuberiok lortu zuela, Menorkako "Trofeu 9 Julio" lasterketan egindako erakustaldiarekin.



ARGAZKIAK: MAIXABEL GAMIOK UTZIAK

Goñi eta Berho azpitxapeldun Idiazabalen

Nafarroan jokaturako hainbat pala txapelketatan ez ezik, Gipuzkoaldean ere bikain dabilta Josu Goñi eta Joseba Berho oronoztarrak. Idiazabalgoan ere finalean izan ziren, finalerdietan Otxoa eta Gametxori 25-14 irabazita. Finalean ere irabazten joan ziren, baina azkenean 21-25 galdu zuten Aranjuelo eta Martinezen kontra.

Calzados Virgilio
MERKEALDIA
Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua
Santiago, 32 · ELIZONDO · 948 580 209
www.calzadosvirgilio.com

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

BESTAK → ABUZTUAREN 7TIK 11RA

Baztan-zopa Egunarekin hasi eta zikiroarekin akituko dituzte Zigako bestak

San Lorentzo
egun handian
Baigorriko
dantzariak,
txalaparta eta
joaldunak

TTIPI-TTAPA

Zigako San Lorentzo
bestak abuztuaren 7tik
11ra ospatuko dituzte.
Bortz egun hauetan egi-
tarau zabala izanen du-
te:

ORTZILERIA, ABUZTUAK 7 BAZTAN-ZOPA EGUNA

- 20:00 txupinazoa, ezkil jotzea.
- 20:15 herriko trikitilariak herri itzulua eginen dute.
- 21:30 baztan zopak (txartela maiordomok salgai).
- 00:30-05:00 Dantza-di musika taldearekin dantzaldia.

LAUNBETA, ABUZTUAK 9 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 10:30 Herriko trikitilariak herrian barna.
- 11:00 gazte gosaria soziedadean.

- 11:30 haur jokoak herriko plazan.
- 12:00 gazteak auzo eta baserriko ibilbidean trikitilarekin ibiliko dira.
- 12:30 haur krosa.
- 14:00 haur bazkaria (txartela maiordomok salgai).
- 16:30-19:00 haurren-tzat puzgarriak.
- 18:30 txokolatada.
- 20:00-22:00 Oharkabe taldearekin dantzaldia.
- 22:00 xinger jatea elizaren gibelean.
- 00:30.-04:30 Oharkabekin dantzaldia.

IGENDIA, ABUZTUAK 9

- 09:00 herriko trikitilariak herri itzulian.
- 10:00 meza.
- 17:00 neska eta mutikoen frontenis txapelketa.
- 19:30 kantaldia Bankako Menditarrekin.
- 20:00-22:00 Frantziskorekin dantzaldia

ASTELEHENA, ABUZTUAK 10 SAN LORENTZO EGUNA

- 10:00 herriko trikitilarien itzulua herrian.
- 11:00 meza nagusia.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Garai batean bezala, orai ere mahai inguruan giro ederra sortzen da Zigako San Lorentzo bestetan.

- 12:00 luntxa plazan.
- 18:00 herriko gazteen arteko herri kirolak.
- 19:00 Baigorriko dantzariak.
- 20:00-21:30 Hauspolariet taldearekin dantzaldia.
- 21:30 txalaparta eta joaldunak.
- 22:30 xinger jatea eliz gibelean.
- 00:00-03:00 Hauspolariet taldearekin dantzaldia.

TXARTELAK

Otorduetako txartelak Baztandarren Biltzarraren ondotik salgai jarri dira
iazko prezioetan baina abuztuaren 3tik aitzin erosten duenak salneurri handiagoa ordaindu beharko du.

ASTEARTEA, ABUZTUAK 11 ZIKIROA

- 11:00 herriko trikitilariak herriko itzulian ibiliko dira.
- 13:00 ezkil-jotzea.
- 14:00 zikiro-jatea Agerraldek alaiturik (txartela maiordomok salgai).
- 20:00-01:00 Agerraldearekin dantzaldia.
- 01:00 xinger jatea eliz gibelean.

ELEKBERRI

INSTALADORE
BAIMENDUAK

Santiago 118, Elizondo (Na) • elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE**
abokatua



Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → HERRIKO BESTEI BEGIRA OHARRA

Emakumeak ere errespetatzea eskatu du Plazara Dantzara taldeak

Baztango Mutildantzari Taldeak dantzatzeko eskubidea bai, baina bertzeen eskubideak zapaltzeko eskubiderik ez duela dio

TTIPI-TTAPA

Plazara Dantzara taldeak ohar bidez aipatu duenez, «Baztanen mutildantzaren gaiarekin egungo egoeran baldin bagaude, emakumeak errespetatu ez direlako da. Baztango Mutildan-

tzari taldea sortu bazen ez zen kultura bulkatze-ko izan, momentu konkretu batzuetan emakumezko gabea multildantzak dantzatzeko baizik. Kulturaren alde ilun bat hain zuzen ere: emakumeak leku publikoetan egoten ez ziren garaiko kultura».

Plazara Dantzaren ustez, dantza batek herri baten folklorean bere lekua betetzen du eta bertze edozein arte adierazpen bezala, zerbait adierazteko da. Mutildantzak ere bere adierazpena egiten du eta Plazara Dantzara taldeak dioenez, «Baztango Mutildantzaren taldeak dantzatzeko duen bako-



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar Etxeko lan baldintzen kontrako protesta

Zahar Etxeko langileen deialdia babestuz 100 pertsona bildu ziren uztailaren 3an Elizondoko plazan. Honen bidez, langileek pairatzen dituzten lan baldintzak salatuz eta Zahar Etxearen etorkizunaren inguruan eta eskaintzen den zerbitzuaren inguruan bere kezka adierazi zuten. *Baztango Zahar Etxean lan zama gehiago, murrizketa gehiago eta lan eskubide guttiago, aski da!* goiburupean egindako kontzentrazioa bertaratutakoek IDEA enpresa pribatuaren gestioa salatuz zuten eta publikazioaren aldeko oihuak entzun ziren.

tzean haxe adierazten du: Hemen emakumezko ez».

Elizondoko bestetan, bertze herrietako bestetan bezala, «ez dugu onartuko eremu publiko batean halako adierazpenik eta gure esku dagoen guziaz egiten dugu hori ekiditeko, emakumei lekua uzten

ez dien edozein adierazpena onartuko ez dugulako», dio Plazara Dantzarak. «Eskubidea dute dantzatzeko, duarik ez. Ez dutena da eskubide bat zapaltzeko eskubiderik. Askatasunaren izenean askatasun bat kentzeko eskubiderik ez duten bezala. Eta hori ederki adierazten dute emakume bat dantzarat hurbiltzen zaienean iraintzen, bulkatzen eta musika eta dantza gelditzen».

Plazara Dantzara taldeak aitzinerat segituko du, «plazak betetzeko, dantzak mantenduz eta emakumeen presentzia leku publiko guztietan bermatuz».

Uda honetan, **HOTEL BAZTAN**

Gozatu gurekin



Gure inguru paregabeaz gehiago gozatzeko berrikuntzak egin ditugu
HOTEL BAZTAN, aire berri batekin



KAFETEGIko karta berria

pintxoak, plater konbinatuak, errazioak, pizzak eta Baztango aratxearekin prestatutako hanburgesa desberdinak

JATETXE-ERRETEGIA berriz irekitzen dugu

Zatoz eta dasta itzazu Nafarroako sukaldeko plater tipikoak eta haragi erreki hoberenak

HOTEL BAZTAN, familiarekin, lagunekin...

Erreserbak: 948 580 050 edo www.hotelbaztan.com

HOTEL BAZTAN... aukera egokia!

GIZARTEA → ZAHARBERRITZE LANAK

Eliza ingurua moldatzeko 24.000 euroko inbertsioa

Elizaren gibelean dagoen etxea moldatuko dute

TTIPI-TTAPA

Salbatore elizari erantsia dagoen etxearen aitzinaldea eta teilatua berrituko da, Udalak ahobatez onartu duenez. Garai batean elizaren etxea zena molda-

tuz, X-XI. mendeko monastegiaren ingurua hobe-
tu eta sendotuko dute. Santiago Villares alkateak aipatu duenez, etxearen kanpoko aldean bakarrik egiten dira lanak eta 24.052 euroko inbertsioa egiten da.

Plazan ere lanak egiten dira. Aparkatzeko arazoak izaten dira eta proposatzen den birmoldaketarekin, baliteke plazan aparkatzea debekatzea eta aparkale-



TESTUA ETA ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Herriko altxor naturala ezagutzeko aukera

Uztailaren 16tik aurrera, ostegunero eta arratsaldeko 7etan hasita, Urdazubi-ko ingurugiroa eta altxor ekologikoak ezagutzeko aukera ematen du aurten Herriko Etxeak. Juan Goñi naturalistak gidaturiko txango didaktikoak izanen dira aurten gure herrian, Alkerdi eta Leorlas inguruko parajeak eta bertan bizi diren landare nahiz animalien berri emanen duelarik. Sarrerak klaustroan, turismo bulegoan nahiz Ikaburuko lezeetan erosi ahal izango dira. Irudian, Herriko Etxeko zinegotziak Juan Goñiren azalpenak entzuten, herrian entzute handia duen ehun urtetik gorako zuhaitzaren ondoan.

ku berrirako ibilgailuen sarbidea hobetzea da,

baita seinalizazioa ere. Honetan abstenitu ziren

Urdazubi Elgarrekin taldeko hiru zinegotziak.

GIZARTEA → OPOSIZIOKO UDAL TALDEAREN OHARRA

Urdazubi Elgarrekin taldearentzat «eskandalua da» Aroztegiarekin gertatutakoa

Estalkia aldatu beharrean, «etxea bota eta berria eraiki dela» salatu du

TTIPI-TTAPA

Urdazubi Elgarrekin taldearentzat eskandaluzkoa da aroztegia eraitsi izana. Herriko Etxeari Cedernak emandako 50.000 euroko dirulaguntza 1715ean eraikitako aroztegiaren estalkia aldatu eta Plan Munitzipalean jasoak diren eta herriak beharrezkoak dituen dotazioak bertan jartzeko obrak egi-

teko zen, «baina ez bota eta etxe berri bat eraikitzeko». Aroztegiaren ondoko etxea botako zela aipatzen zuen proiektuak. «Hala ere, Udalak bi etxeak bota zituen, hirugarren etxe bat, apezaren etxea izan zena arriskuan jarritz», dio oharrak. Ondorioz, elizaren aldarearekin komunikatzen zuen atea irekita geratu zen, eta elizaren kontrafuertetako bat ere kaltetua suertatu zen. «Konstruktoreak berehala itxi zuen ate hori horma bat eginez, inori fitxik erran gabe. Gure ustez, jokatibide hori oso larria da

eta proiektuak izan duen transparentzia eza erakusten du».

Ekainaren 10ean, Sepronak Herriko Etxea eta Pedroarena konstruktorearen kontrako salaketa egin zuen ustezko bi lege hauste egiteagatik. Uztailaren 2an, Nafarroako Kultura Sailak idatzia igorri zion Herriko Etxeari Ondare Historikoaren babesarekin arduraturik eta Gobernuaren harridura azalduz, aroztegia eta kartzelaren zoluetan egiten ari diren etxe berria dela eta. Nafarroako Gobernuak Urdazubiko elizak duen babesa kon-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aroztegia bota eta etxe eraikuntza berria eraikiko dute.

tuan hartzeko orduan, elizaren ingurunea ere errespetatu behar dela adierazten dio alkateari. Hori dela eta, Udalak Bianako Printzearen Institutuzioaren baimena eskatu behar zuela aurpe-

gizatzen dio, eta «Urdazubiko monastegiaren elizaren eraikin guztiak Nafarroaren ondare kulturalaren parte dira, Udal Planaren katalogoak aditzera ematen duen bezala».

ZUGARRAMURDI

KULTURA → UZTAILAREN 6AN

Bertze film baterako irudiak grabatu dituzte lezean

Loiolako San Ignacioren bizitzaren zati bat filmatzen ari dira

Margari eta Koro

Uztailaren 6an, bertze filma baten grabaketa izan genuen lezean. Alex de la Iglesiaren "infernua" irudikatzen, "zerua" izatera pasatuko da aldi honetan: Loiolako San Ignacioren bizitzaren zati bat filmatzen ari baitira.

Filipinasko ekoizle bat da grabaketaren ardura, eta diotenez, Filipinasen, arraskasta haundia dute gisa honetako filmek. Normalean, hango eszenatokitik eta paisajetatik grabatzen dituzte, eta hango aktoreekin. Baina kasu honetan, ahalik eta errealistago egin nahi dutenez, Euskal Herriat etorri dira eta hemengo aktoreak ari tuko dira. Filmaren ordainketa Asiako Jesui-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi herritako 7 neska-mutikok komunionea egin dute

Urdazubi eta Zugarramurdiko haurren komunioneak urtez-urteko herri txandetan egiten dira. Aurten Zugarramurdi egin dira, ekainaren 21ean. Franko berandu izan dire, baina horri esker, eguraldia lagun izan zuten Eneko, Garazi, Xuban, Naiara, Jokin, Miren eta Klarak.

ten Komunitateak egin du.

Udako eskaintza berezia lezean eta museoan

Uztailaren 15etik irailaren 15era eskeintza bereziak egingen dituzte lezean eta museoan:

Asteazkenero, Akerbeltz laburmetraiaren emanaldia, Museoan

19:00etan.

Ortzegunero, Zugarramurdi, zentzumen guztietatik, herritik barrena bisita gidatua, 17:00etan.

Agorrilean ortziraleko, Ilargi bete, sorginen larrea bisita antzeztua, 19:30etan.

Larunbatero, Alex de la Iglesiaren *Las brujas de Zugarramurdi* filmaren oinarrituta den bisi-

ta multimedia, 17:00etan.

Agorrilaren 26an, Kultur'2015eko egitaraua: 18:00etan Iparfolk taldearen kontzertua.

Aipatzeko ere, ordutegiak luzatuko direla: lezea egunero edekiko arte; eta Museoa berri, asteartetik igandera 11:00etatik 19:30ak arte.

IRAILAREN 29AN

Emakumeen Mundu Martxa Baztanera ailegatuko da

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8an Kurdintasunen hasi eta urriaren 17an Portugalera iritsiko den Emakumeen Mundu Martxa karabana feminista Euskal Herrian izanen da irailaren 28tik urriaren 4a arte. Baztanen, irailaren 29ko arratsaldean izanen da.

Aurkezpenean aipatu zuten, 1995ean sortu zen Quebec-en eta urte hartan izandako arrakasta ikusita, bortz urte berandua goa egin zen bigarre-na, mundu mailan. Geroztik, 5 urtero egiten da eta 2005ean lehen aldiz pasa zen Euskal Herritik eta atxikimendu pila jaso zituen.

2015eko martxa, Gure gorputzak, gure lurraldeak. Martxarekin segituko dugu guztiok libre izan arte lemapean burutzen ari da. Honenkin, «emakumeok bizi ditugun indarkeria mota anitzak ikustarazi, salatu eta horren erantzuleak identifikatu nahi ditugu».

2015eko emakumeen mundo martxaren ikur amankomuna haizak dira, elikadura bujurabetzaren aldeko borroka gogoan. «Horri dela eta, martxarekin bat egiteko eta atxikimendua adierazteko ereite sinbolikoak egitea proposatzen dugu, norbanakoak edo taldeetakoak. Ereinu pribatu edo eta publikoetan. Ereinu dezagun haizia eta sortu ditzagun baso feministak gure herrietan!» zioten.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3. km
 URDAZUBI

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

GIZARTEA → PILOTARIAK PRESTATU DITU 40 URTEZ

Jean Ithourria pilotazalearen plaza estrenatu berri dute

Gantxiki eta Larreko gelen ondoan

Franck DOLOSOR


Senperen nork ez du ezagutzen Jean Ithourria? Ibarrungo Kataloxenean sortua eta aspaldi Hiruak Bat etxe guneko kaskoan, Bista Eder etxean bizi den pilotazaleak pilotari gazteak entrenatu ditu 40 bat urtez. Ahatik, Jeanek ez du ahanzten bide luze hori egin duela Mayi bere andrearen laguntza izan baitu beti. Uztailaren 15ean Senperen jokatu ziren pilota partidaren ondotik, Xan Ithourria plaza berria estrenatu zuten herriko hautetsiek eta pilota saileko arduradunek. Besta hunkigarrian Ithourriaren lagun eta familiako lau belaunaldiak bildu ziren Larreko kulturgunearen aitzinean den plazan. Preseski, Jean pilotazalea eta Larreko bertsulari zena lagun haundiak ziren biak ibarrundarrak izaki eta biak 1924an sortu baiziren.

43 urtez, beraz, pilo-

tari gazteak trebatu eta ainitz lagundu ditu Jeanek. Zonbat entrenamendu, partida, sari eta kilometra Euskal Herriko xoko gehienetan? Ehunka, milaka... Urte aberatsak, dudarik gabe, pilotarentzat eta Senpereko gazteentzat.

Bertzalde, Senpereko herriko bestetako astelehen arratsalde hut-sa alaitzeko, gazteen arteko zoingehiagoka apailatzea pentsatu zuen Jeanek Lan hortan aritu da hogoita hamalau urtez duela urte batzuk Chabatene, Santiago eta Théophile txapeldun haundiak aritzen ziren toki ber berean.

Jakes Casaubon pilotazaleak eta Ithourriaren laguna denak dio «sekulan ez dela aski goretsiko Jeanek Senperen pilotaren alde egin duen lana». 1966ko abenduaz geroz, pilota batasuneko buru izan da eta xapeldun frango trebatzen lagundu du. Dena den, pilotaz gain, sail anitzetan ere aritu da lanean Jean Ithourria: kantoniera edo bidezaina ogibidez, suhiltzaile hogeita bortz



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Omenaldia Xan Ithourria pilotazaleari bere izena duen plazaren estrena egunean hautetsi eta herritar ainitzen ondoan..

urtez, musikaria eta kantaria Emak Hor batasunean, eta berriemaile Herria astekari euskaldunean, bertzeak bertze. 1971tik 1983 arte,

kontseilaria izan da herriko etxeko kontseiluan.

Beharbada senpertarrek ez dugu sekulan aski eskertuko Jeanek egin duen lana. Haatik,

Jeanek ez du ahanzten bide hori egin duela bere andrearen laguntza izan baitu beti... Bibazu Jean Ithourria eta goresmenak!



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Zarena Zarelako dantza konpainiaren ikusgarri berria

Zarena Zarelako dantza konpainiak Herrikoa deitzen den ikusgarri berria estrenatu zuen Amotzeko besten kariatarat. Jota eta fandango emanaldiarekin erdietsi duten gaitzeko arrakastaren ondotik dantzariak ikusgarri gehiago eskaini nahi lukete ondoko egunetan.



LESAKAKO
UDAL KIROLDEGIA
Antoiu 11, 31770 LESAKA
Telf: 948 637 400



SARA

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAN ZEHAR

Errugbi, pilota eta Zazpiak Bat dantza elkarteen erromeriak prest

Bertze aldetik, udako merkatua egingen dute astelehenero goizez

Joana GERENDIAIN

Abuztuaren 1ean, Sarako izarra errugbi elkarteak bere besta egingen du, horren karietara eguerdi eta gauean jateko aukera izanen da, arratsaldean indar jokoa egingen dituzte. Abuztuaren 8an, Zazpiak bat dantza elkartearen itzulua izanen da, arratsaldean dantza

ikusgarri bat emanen dute eta ondotik, afari bat antolatua da, bi menu proposatuak dira 10 eurokoa edo 12 eurokoa. Abuztuaren 22an, Sarako izarra pilota elkarteak bere besta egingen du. Arratsaldean pilota partidak jokatu dituzte, eta eguerdi eta gauean jateko aukera izanen da.

Udako merkatua

Astelehen goizero, 9etatik arratsaldeko 1ak arte, plazan eskulangintzako merkatu bat izanen da. Merkatua uztailaren 13tik irailaren 28ra egingen da, irailaren 14an salbu, Sarako bestak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pottokaren besta uztailaren 25ean

Uztailaren 25ean Pottoka besta egingen da. Goizean pottokak plazara jautsiko dira, ondotik erakusketa eta txapelketa egingen dira. Eguerdian bazkari bat izanen da eta egun osoan animazioak.

izanik, ez baita egingen azokarik.

Saltzaileen elkarteak

Uztailaren 24an, ostiral gauean, Sarako saltzaileen elkarteak bultzaturik gaualdi berezi bat antolatua izanen da. Arrats horretan plazako jatetxeek menu bakar eta berdina proposatuko dute, plazan dantzaldi bat eta

saltzaileek atxikitako ostatu bat izanen da.

Ekoizleen merkatua

Abuztuaren 9an, igande iluntzean, toki-eko ekoizleen merkatu bat antolatua da plazan. Bakoitzak bere afaria egiten du merkatuan berean erositako produktuekin: haragi, barazki, gasna... Ostatu bat bada.

Selauru hustea

Abuztuaren 16an, selauru huste bat izanen da plazan. Bertan jaten ahalko da edo talo edo ogitarkeko eta ostatu bat izanen da ere. Toki bat erreserbatzeko 06.77.83.94.85 zenbakira deitu behar da.

Denbora txarra baldin bada polikiroldegian egingen da. Sartzea urririk da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) |
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA |

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Josu Oiartzabal Larralde eta **Ekhiñe Larralde Lertxundi**, Lesaka eta Berakoa, uztailaren 6an.

Gorka Bermejo Hualde eta **Lorena Almandoz Mutuberria**, Leitza eta Doneztebekoa, ekainaren 20an.

Aitor Ambrosio Boneta Jimenez eta **Itxaso Oiza Vazquez**, Tafalla eta Iruñekoa, Elgorriagan uztailaren 4an.

Fernando Irazoki Alzuguren eta **Angela Lasa Azkona**, Alkaiaga eta Berakoa, Beran uztailaren 6an.

Iñaki Otxandorena Eizagirre eta **Marta Petirena Telletxea**, Oronoz-Mugairi eta Sunbillakoa, maiatzaren 30ean.

Maxime Piquemal eta **Fanny Bacholle**, Sarakoak, uztailaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Beñat Ariztegi Maillot, Zugarramurdikoa, uztailaren 6an.

Oian Bayona Brucker, Goizuetakoa, uztailaren 6an.

Jade Mila Krater Crussol, Alkaiagakoa, uztailaren 4an.

Eider Migeltorena Arretxea, Berroetako, uztailaren 2an.

Xan Luberriaga Apeztegia, Zugarramurdikoa, uztailaren 14an.

Aner Petirena Gonzalez, Berakoa, uztailaren 14an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Francisco Urrutia Goñi, Elizondokoa, uztailaren 4an, 89 urte.

Francisco Atutxa Petralanda, Berakoa, uztailaren 7an, 84 urte.

Maria Luisa Ugalde Elgorriaga, Berakoa, uztailaren 7an, 74 urte.

Juan Jose Agirre Iparrea, Arizkungoa, uztailaren 8an, 56 urte.

Jose Joaquin Barberena Iturralde, Irurita, uztailaren 8an, 68 urte.

Miguel Hualde Irigoien, Elizondokoa, uztailaren 8an, 83 urte.

Miguel Agerre Vergier, Amaiurkoa, uztailaren 11n, 84 urte.

Fernando Mayora Larunbe Xapel, Almandozkoa, uztailaren 11n, 81 urte.

Teodora Alzuguren Iturria, Etxalarakoa, uztailaren 13an, 91 urte.



Maite AROZARENA BENGOTXEA

Amaiurren, 2014ko uztailaren 27an
I. URTEMUGA

Zure begien dizdira eta
expainetako irria
beti gurekin egonen dira
ama maitagarria

ZURE FAMILIA

Francisco MARITORENA MENDIBERRI
Arraiozen, 2015eko ekainaren 26an, 73 urte zituela

Non zara,
Auzpen, Abartanen, Saioan...
mendiko xendetan goiti
hain kontent ibiltzen zinena?
Karakotzeko lanetan
elkarrekin ibiltzeko aukera izen dugu.
Zuk emandako portasun eta maitasuna
gurekin eramanen ditugu beti.
Besarkada haundi bet, Pantxo.

ZURE FAMILIA



Miguel ALMANDOZ TAPIA

Lesakan, 2014/07/22
I. URTEMUGA

Miguel gure artean ez zauden arren,
gure bihotzetan jarraituko duzu betiko.

ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza uztailaren 26an,
09:30ean Lesakako San Martin Elizan.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETAK

Txapel uzta ederra ekarri dute eskualdeko kirolariek Sanferminetatik

Xabier Ariztegi eta Lander Landiribarrek lehen txapelak

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Sanferminak aprobetxatu dituzte Nafarroako hainbat herri kirol txapel jokatzeko. Horietatik aunitz, eskualdera etorri dira.

Emakumeen arpana txapelketan Lezaungo Itziar Nuñez eta Ana Lopez izan ziren txapeldun, Elsoko Ainhoa eta Ana Iraizoz bigarren, Aresoko Itxaso Onsalo eta Lesakako Xanta Sousa hirugarren eta Berako Nerea Sorondo eta Amaia Garcia laugarren. Gizonetan ez zen

eskualdeko kirolaririk.

Ingude altxatze txapelketan, emakumeetan, ez zen ezustekorik izan eta Maika Ariztegi iturendarra izan zen txapeldun, 93 altxaldiarekin. Mertxe Ariztegi ahizpa bigarren izan zen, 82 altxaldirekin eta Amaia Etxeberria hirugarren (81 altxaldi). Gizonezkoetan, Euskadiko txapeldun izan berri den Josetxo Urrutia leitzarra nagusitu zen, 86 altxaldirekin. Aritz Izuzkiza izan zen bigarren (81 altxaldi) eta Imanol Martin hirugarren (78 altxaldi).

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketare jokatu zen. Lehen borts sailkatuek finale-



ARGAZKIAK: D. NOTICIAS

Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarra harrijasotze txapelketan eta Lander Landiribar, lasto altxatze txapelketan, Nafarroako txapeldun izan ziren lehen aldiz.

rako txartela zuten joan eta azkenak, berri, maila galdu. Bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat moztan bizkorrena Aresoko Asier Pellejero izan zen (7:44), Olagueko Aitor Senosiain bigarren (7:55), Arostegiko Manuel Kañamates hirugarren (8:24), Leitzako Eneko Saralegi laugarren (8:44) eta Etxarri Aranazko Goizeder Beltza bosgarren (8:57). Finaletik kanpo gelditu ziren Resano, Erdozia, Zubietako Mikel Indakoetxea, eta Beintza-Labaiengo Xabier Mindegia, Migel Angel Etxeberria eta Jesus Etxeberria. Azken honek maila galduko du.

Nafarroako kadete mailako arpana txapel-

keta irabazi zuten Basaburuko Antton Irigoien eta Iker Alemanek.

Nafarroako harrijasotze txapelketa Xabier Ariztegi etxalartarak irabazi zuen lehen aldiz. Zilindroari 20 altxaldi eman zizkion, kubikoari 13 eta bolari 14, denera, 5.362,5 kilo. Josetxo Urrutia bigarren izan zen, 4.925 kilo jasota.

Emakumezkoen txingira txapelketan ez zen ezusterik izan eta Xanta Sousa lesakarrak nagusitasunez jantzi zuen txapela, 34 plaza eta erdi pasatxo eginez. Ezkurako Karmele Zesetau bigarren izan zen, 11 plazarekin..

Nafarroako lasto altxatze txapelketan, Amaiurko Lander Lan-

diribar suertatu zen txapeldun, Amaiurko Iñigo Goienetxe eta Iganztiko Eneko Telletxearen aitzinetik. Orga joko txapelketan Ezpeletako Pierre Casuso izan zen txapeldun eta Josetxo Urrutia laugarren.

Nafarroako bikotekako aizkora txapelketan, Leitzako Jon Rekondo eta Ruben Saralegi suertatu ziren txapeldun, Ander Erasun eta Donato Larretxeari 22 segundo aterata.

Gizonezkoen txingira eramate txapelketan, azkenik, Berroetako Josu Gamio bigarren izan zen, Metautengo Simon Thomas Callaghan txapeldunaren ondotik. Josetxo Urrutia laugarren izan zen.

HERRI KIROLAK → ABUZTUAREN 15EKO AZKEN SAIORAKO KANPORAKETA ERE SANFERMINETAN JOKATU ZEN

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketaren finala Ezkurran jokatu da

Borts aizkolari izanen dira lehian

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Sanferminetako azkenaurreko egunean Nafarroako hiru-

garren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zen uztailearen 13an. Zortzi aizkolari aritu ziren lehian, abuztuaren 15ean Ezkurran jokatu den finalerako borts txartelaren bila.

Bi kanaerdiko moztu behar zituzten eta denetik bizkorrena Arostegiko Oier Kañamates izan zen (4:46). Kasik minutuko aldea atera zion Zigako Joxean Etxeberriari (5:41). Beintza-Labaiengo Jon Telletxea

izan zen hirugarrena (6:05) eta Arbizuko Iosu Agirre laugarren (6:34). Finalerako azken txartela ematen zuen bosgarren posturako lehia polita izan zen eta azkenean Ezkurako Moises Gogorzak lortu

zuen (8:11). Beraz, herrian jokatu den finalean artuko da Gogorza.

Finaletik kanpo gelditu ziren Olaztiko Abel Uri (8:48), Gerendiaingo Esteban Pikabea (9:16) eta Uharteko Koldo Garcia (12:07).

HERRI KIROLAK → UZTAILAREN 5EAN AZKARATEN

Jon Kanflanka leitzarrak irabazi du Nafarroako sega txapelketa

200 kiloko aldea atera dio Mikel Berakoetxeari

TTIPI-TTAPA

Bost urtez ez dute antolatu Nafarroako sega txapelketa, lehiakiderik ez zegoelako eta aurtén, bi lehiakide bazirenez, jokatu ahal izan da. Jon Kanflanka leitzarrak uztailaren 5ean Azkaraten jokatu zen norgehiagokan lortu zuen Nafarroako txapela

lehen aldiz janztea. Txapelketa hau bost aldiz bakarrik jokatu da Nafarroan (2005, 2006, 2007, 2010 eta 2015). Aurreko lau txapelketak Lantzeko David Mariñelarenak eraman zituen.

Segalari bakoitzak 45 minutuz ahalik eta belar gehien ebaki behar zuen. Jon Kanflanka leitzarrak 1.891 kilo ebaki zituen eta Mikel Berakoetxea gorritiarrak 1.689 kilo, beraz, 200 kilo pasatxoko aldea atera dio txapeldunak. Biak Euskal Herriko



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL Ondoan, Jon Kanflanka leitzarra lanean, Nafarroako sega txapelketan. Goiko argazkian, laguntzaile izan zuen taldearekin ageri da, txapela lortu eta gero.

Sega Txapelketan ari-
tzeakoak dira eta kanpo-
raketa uztailaren 26an
jokatuko dute Aian (Gi-
puzkoa).



HERRI KIROLA → UZTAILAREN 26AN ELIZONDON

Euskadiko arpana eta Nafarroako lokotx biltze txapelketak jokoan

TTIPI-TTAPA

Elizondoko besten baitan, herri kirol jaialdi bikaina eginen dute uztailaren 26an, 19:00-etan. Alde batetik, Euskadiko arpana txapelketa jokatuko da eta bertzerik, Nafarroako lokotx biltze txapelketa. Bien kanporaketak ekainaren 27an jokatu ziztuzten Uharten.

Euskadiko arpana txapelketaren finalean ez da eskualdeko orde-

karirik izanen, Anizko Andoni Irigoien eta Irurita-ko Guillermo Etxenike, 37 zentesimarengatik kanpoan gelditu baitziren. Saillapenean lehenbizikoak, Mikel Eugi eta Julen Kañamares III izan ziren. Beraiekin batera, gaur egun txapeldun diren Iñaki eta Jose-
setxo Barberena anaiak, Igor Esnaola eta Santi Aizpurua, Imanol eta Oier Kañamares lehengusak, Esteban eta Mar-

tin Pikabea anaiak eta Unai Iraola eta Jokin Gar-
mendia izanen dira.

Nafarroako lokotx biltze txapelketako kanporaketan zazpi kirolari aritu ziren. Bizkorrena faborito nagusia izan zen, Fernando Etxegarai beratarrak (6.10). Bigarren Andoni Lasaga etxalatarrak izan zen (6.36), hirugarren Berriozarko Eder Goldarazena (6.46), laugarren Anizko Unai Iantzi (6.48)



ARTXIBIKO ARGAZKIA
Nafarroako txapela 17. aldiz janzteko faborito izanen da Berako Fernando Etxegarai.

eta bosgarren Etxalar-ko Iñigo Lasaga (7.01). Beraz, bortz kirolari hauek izanen dira uztailaren 26an Elizondon jokatuko den finalean. Fi-

naletik kanpo gelditu ziren seigarren Elizondoko Mikel Iantzi (7.13) eta zazpigarren Berriozarko Iker Mariezkurrena (7.24).

uztailak 23 - abuztuak 6

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak	Ospakizunak	Ospakizunak
 LESACA 2015.08.07 Landarbaso abesbatzaren emanaldia elizan Errenteriako Landarbaso abesbatza mistoak, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean, emanaldia eskainiko du elizan, 19:30ean.	 SARA 2015.07.25 Pottokaren Egunean menditik plazara jautsiko dira zaldikoak Menditik plazara bildu eta bertan pottoken erakusketa eta txapelketa eginen dituzte, baita herri bazkaria eta egun osoko animazioak ere.	 LESACA 2015.08.09 Beti Gazteren 75. urteurrenean Ezpata-dantzari Eguna Lesakako elkarteak 75 urte betetzen dituen egunean ehun ezpata-dantzari baino gehiago biltzea espero dituzte, dantzarako nahiz bazkarirako.

Erakusketak

BERA

'Argi jokoak'

Uztailaren 18tik abuztuaren 16ra
 Oaia Peruarenaren margo erakusketa, Berako Kultur Etxean.

SENPERE

Ttito Aguerren lanak Larraldean ikusgai

Uztailaren 4tik 26ra
 Ttito Aguerre zizelkari autodidaktak erakusketa berria aurkeztuko du Larraldean.

ERRATZU

'hAMAR, aitari'

Uztaila eta abuztuaren
 Diana Iniestaren oleo pinturen erakusketa ikusgai, uztailean bere tailerrean eta abuztuaren Erratzuko lixutegian.

SARA

'Larrungo koloreak'

Uztailaren 21etik 31ra
 Sarako margolari elkartearen margo eta eskultura lanak ikusgai egonen dira Lur berri gelan, 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:30era.

BERTIZ

Lesagibel eskultorearen lanak

Uztailaren 8tik abuztuaren 2ra
 Bertizko parkean, egunero ikusgai. (10:30-13:30/16:00-19:00)

ELIZONDO

Tomas Sobrinoren margolanak ikusgai

Uztailaren 23tik abuztuaren 2ra
 Bertizko parkean, egunero ikusgai. (10:30-13:30/16:00-19:00)

Ikastaroak

ELIZONDO

Tokiko elikadura eta nekazaritza ekologikoa

Irailaren 3tik 4ra
 Baztango udalak eta Nafarroako unibertsitate Publikoak elkarlanean antolatu dute 15 orduko ikastaroa. Dohainik da.

Kontzertuak

SARA

Saiberri taldearen kontzertua

Uztailaren 23an. Sarako taldeak kantaldia

eskainiko du Elizan 21:30ean. Sarrerak 5 euro helduek, urririk 14 urtetik beheitikoek.

SENPERE

Landarbaso abesbatzaren emanaldia

Abuztuaren 7an.
 Senpereko elizan 19:30ean.

Ospakizunak

LESACA

Ezpata-dantzarien Eguna

Abuztuaren 9an. Beti Gazte Elkareren 75. urteurrenean ezpata-

dantzariak bilduko dituzte.

SARA

Pottoka Eguna

Uztailaren 25ean.
 Pottokak menditik plazara jautsi eta egun osoko besta.

Sarako Izarra errugbi elkartearen eguna

Abuztuaren 1ean.
 Xehetasunak 54. orrian.

Jardunaldiak

LESACA

Jabe-gabetzeari buruzko jardunaldiak

Abuztuaren 4tik 9ra
 jabe-gabetzeari buruzko Nazioarteko I. Jardunaldiak ospatuko dituzte Matxinbeltzanean.

Bertsolaritza

ELIZONDO

Santiotako jaialdi berezia

Uztailaren 25ean
 23:30ean plazan. Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Alaia Martinekin.

ARANO

Bertso-saioa

Uztailaren 25ean
 17:30ean Julio Soto, Sebastian Lizaso, Jone Uria, Sustrai Colina.

Bestak

BERA

Herriko bestak

Uztailaren 31tik abuztuaren 5era. Xehetasunak 11. orrian.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Uztailaren 31tik abuztuaren 3ra. Xehetasunak 40. orrian.

GAZTELU

Santo Domingo bestak

Abuztuaren 1etik

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Abuztuko lehen bestak ere hemen dira

Salbatoreekin hasi, Sanjoan eta Sanpedroak gero, Sanfermin eta Santoak... eta orain abuztuko lehen besten txanda dator: Berakok, Beintza-Labaien, Gazteluko Santo Domingo eta Zigako San Lorenzo bestak, Santiburtzioak Leitzan eta Sunbillan... Besta nahi duenak, bestarako aukera zabala du urrun joan gabe... Ongi pasa!



4ra. Xehetasunak 41. orrian.

ZIGA

San Lorentzo bestak

Abuztuaren 7tik

11ra. Xehetasunak 49. orrian.

SUNBILLA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 8tik 12ra.

Xehetasunak 24. orrian.

LEITZA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 8tik

15era. Xehetasunak 26. orrian.

ELIZONDO

Santioak

Uztailaren 24tik 28ra.

Xehetasunak 642. alean.

ARANO

Santioak

Uztailaren 19, 24, 25

eta 26an. Xehetasunak 47. orrialdean.

ELGORRIAGA

Santioak

Uztailaren 23tik 26ra.

Xehetasunak 642. alean.

Azokak

ETXALAR

Larunbateroko azoka

Herriko plazan,

09:00etatik aitzinera bertako produktuen azoka.


Mendi irteerak

URDAZUBI


Bisita gidatuak ortzegunero

Uztailaren 16tik aurrera, ortzegunero eta 19:00etatik hasita, Urdazubiko ingurugiroa eta altxor ekologikoak ezagutzeko aukera Juan Goñi naturalistaren gidaritzapean.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Koldar hutsa zara istorio indibidual eta kolektibo baten fikziozko kronika da. Belaunaldi batena, diktaduraren eta trantsizioaren artean jaiotako belaunaldiarena. Fanatismoaren eta koldarkeriaren artean ahaztutako garai bat. Gure kontraesan eta miseria txikien kronika. Zaharrak berri.



Iruñerriko Saskarrak taldeak bere lehen diskoa argitaratu du berriki: *Segi dezagun*, zortzi kantu biltzen dituen lana. Soinu gordina eta gogorra aurkituko du entzuleak oil/punkaren arrastoan. Kantu propioekin batera, bi bertsio sartu dituzte: *Dena beltz* (RIP-en Ahogate kantuen moldaketa) eta *In Ogni Caso* (Lumpen-en In Ogni Caso Nessun Rimorso-ren moldaketa). Hitzei dagokienez, sistema heteropatriarkala eta lana dituzte jo puntuan, 702 zenbakidun preso gogoan dute edota moden gainetik, konformismoa astintzeko deia egiten dute.



Euskaltzaileen Topaguneak sortutako webgunea da *hiztegitxoak.eu*. Bertan, euskaratik bertze hizkuntzatarako noranzkoan, eta alderantziz, oinarritzko hiztegiak lortzeko aukera dago. Hizkuntza ezberdinetako hitzunen arteko zubia euskaraz izatea bultzatu nahi da. Egunerokoan edota bidaiatzerakoan erabilgarria suerta liteke, nazioarteko hizkuntza aunitzen erreferentziak daudelako bertan: turkiera, greziera, fula, galegoa... Oinarritzko hiztegi hauekin, elkarren arteko ezagutza eta aitorza bultzatu nahi da euskara erdigunean jarritz. Web gunearen bidez, 330 hitzeko oinarritzko hiztegia eskuratu daiteke eta inprimatu egunerokoan erabiltzeko. Hizkuntza horietako batzuk, gainera, arriskuan dauden hizkuntzak dira. Era berean, erabiltzaileek hizkuntza berrietako oinarritzko hiztegiak txertatu ditzakete, web gunea gero eta hizkuntza gehiagorekin elikatuz.

Nire aukera



Ainhoa LARREA
Zubietako gaztea

«Adinekoekin aritu ondotik, jendearekin lan egitea gustatzen zaidala ohartu naiz»

Egunean egunekoak bihurtzea gustatzen zaien neska «saltsera eta alaia» da Ainhoa Larrea. Ez du denborarik galtzen, zaldian ibiltzea «asko» gustatzen zaio, baita futbola, herri kirolak, euskal dantzak eta beste ere. Bidaiazalea ere bada eta bidaien artean joan den udakoa du gustuko: «goi zikloa bukatu baino lehen praktikak egin nituen Txipren, animazio soziokultural eta turistikokoak, hirugarren adineko zentro batean». Beste leku batez agutzeaz gainera, «nere burua hobe ezagutu dut; leku desberdinetan mugitzen ikasi dut eta sobera ongi moldatzen ez nintzen hizkuntza manejatzen saiatu naiz». Txipren hirugarren adinekoekin ibili ondotik, jendearekin lan egitea gustatzen zaiola ohartu eta okupazio terapeuta izateko ikasten hasi da: «zailtasun fisikoak, mentalak edo bestelako zailtasunen bat dutenekin lan egiteko karrera bat da; beren bizitza ahalik eta autonomoen bihurtzeko adar bat». Etorkizunean bere ikasketekin lotura duen lanen batean ari nahi luke.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

BERA. Herri erdian pisua salgai, 3 logela, sukaldea, jantokia, 3 armairu enpotratu, 2 komun, trastelekua eta garajeko marrarekin. Igo-gailu eta berogailuarekin. **600 645720.**



BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea desponentsarekin. Igogailua eta buelta oso-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

an 55.92 m²ko terraza-
rekin. Berritu beharra.
948 637359.



DONAMARIA. Artze
auzoan etxebizitza sal-
gai. **676 394225.**

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

IRUÑEA. Ikasleentzat
pisua errentan eman
nahi da. 3 logela ditu eta
logelak banaka erren-
tan hartzeko aukera ere
badago. Unibertsitate

publikotik 5 minutura.
Baztandarra naiz. **620**
209663.

ETXALAR. Larrapil Sarri-
ku karrikan etxea erren-
tan emateko. Herriko bis-
ta zoragarriak dituen to-
ki paregabea. 3 logela,
2 bainugela, sukaldea, 2
egongela, despentsa eta
trasteleku handia. Oso
eguzkitsua. **687**
766971 / 688 842054.



ORONÓZ-MUGAIRI.
Pisu berria errentan
emateko. Sukalde-
egongela, logela bat,
komuna eta trastelekua.
300 euro alokairua edo
73.000 eurotan salgai.
663 312557.

IRUÑEA. Pisua erren-
tan emateko. 4 logela,

bainugela, sukaldea,
jangela. Unibertsitate-
tik 5 minutura. **686**
611142.

IRUÑEA. Pisua erren-
tan eman nahi da, Pau-
lino Caballero kalean. 3
logela ditu eta moblezt-
atua dago. Oso argi-
tsua. Unibertsitate-tik 5
minutura. **647 992350.**

LANDAK. Etxe bat
errentan eman nahi da
Landetan aste batera-
ko, abuztuaren 8tik
15era. Leku lasaia. Hon-
dartzatik 10 kilometro-
tara. Mimizan ingur-
uan. **665 752724/948**
625415.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan
pisua edo etxebizitza
errentan hartu nahi da.
647 233690.

Doneztebeko familia
batek pisua edo etxea

behar du errentan har-
tzeko. Lan kontratu fin-
koarekin. **669 773760.**

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Lesakako bi neska gaz-
te gara, hurrengo ikas-
turtean Leioako EHUko
kanpusean bioteknolo-
gia eta medikuntza ikas-
ten hasiko garenak. Pi-
sua osatzeko pertsona
baten bila gabilta. Ahal
bada EHU ikaslea izan,
neska eta gure antzeko
ikasketetan dabile-
na. **676 345722/ 680**
805480.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

BERA. Etxebizitza bifa-
miliarrak eraikitzeko
prest dauden partzela
urbanizatuak salgai.
Deitu 18:00etatik aitzin-
era. **618 963226.**

LURRAK/ORUBEAK

errentan emateko

LESAKA. Zanzonbaita
baserriko 5.000 arbole-
ko saila errentan eman
nahi da aprobetxamen-
durako. Haritza, akazia
eta pinua. **943 632864.**

LANA

eskariak

**Berako neska euskal-
duna** uztailaren eta
abuztuaren umeak zain-
tzeko prest dago. **661**
100323.

Lesaka eta inguruan
emakumea eskaintzen
da etxeak garbitu edo

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(uztailaren 3tik 10era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): **36 €**

Zerri gizena
1,259 € kiloak.

Zerramak:
0,410 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,86

1.koa 3,63

2.koa 3,47

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,17

1.koa 3,91

2.koa 3,74

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 150,00 (-18)

idixkoak 210,00 (-18)

Aretze nabarrak:

urruak 140,00

idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,10/6,70

8-10 kilokoak: 5,70/5,90

adineko eta haurrak zaintzeko. ☎647 233690.
Administratzaile, sal-tzaile eta zerbitzari lanetan eskarmentua duen emakumea lan bila dabil. Euskaraz eta frantsesez hitz egiten du eta ingeles pixka bat ere bai. Edozein lanetarako prest egonen litzateke. ☎687 832844.

LANA

eskaintzak

IGANTZI. Uda honetarako zerbitzariak, sukaldariak eta kamioi-gidariak behar dira Irizarri Landen. Bidali curriculum-a: administracion@irizarriand.es.

URDAZUBI. Ikaburua jatetxean ontziak garbitzeko pertsona bat behar da. 12:00etatik 16:00etara, igande eta jai egunean. ☎948 599222.

URDAZUBI. Ikaburua jatetxean sukaldaria behar da udan ordezkapen bat egiteko. Eguerdiko zerbitzurako. ☎948 599222.

URDAZUBI. Ikaburua jatetxean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar da 12:00etatik 16:00etara lan egiteko, uztaila eta abuztuan eta jai-egunetan ☎948 599222.

IBARDIN. Zerbitzaria behar da abuztuan lan egiteko, frantsesa dakiena eta hobe esperientzia badu. ☎948 630311.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar da. ☎948 599146/ 948 599009.

MOTORRAK salgai

Peugeot 307 XR1.6 autoa salgai. 110zaldi, 3 ate, klima eta itv-ea pa-



sa berria. 68.500 km. 3.200 euro. ☎686 733349 (watsapp bidez ere bai)

BMW Serie 1, 118d autoa salgai. 145zaldi, eta bost atekoa. Oso egoera onean. ☎679223673



MOTORRAK tailerrak

Automóviles IMOB
Okasioko ibilgailuen salerosketa

CITROEN BERLINGO MULTISPACE
PEUGEOT PARTNER 4X4
VW TOURAN 2.0 TDI 140CV
FORD CMAX 1.6 TDCI
SEAT LEON 1.6 TDI

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

DENETARIK salerosketak

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



100 akazia pikete salgai 250 eurotan. Kontaktua telefonoz, ☎630 472 447



Regrosadora 45 cc.koa, **zerra** 80 cc.koa, **zepilladora** konbinatu **zirkularra** eta **taladroa** 40 cc.koa, **tupi bat** 50 cc.koa **ejearekin** eta **katezko taladroa**. ☎636 214080.

Logelako altzariak salgai. Bi ohatze, armairua ispiarekin eta komoda. Oso egoera onean daude. ☎660 870536.



ETXALARKO UDALA

EHIZA BARRUTIA ERATZEKO PROIEKTUA

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea eta hura garatzeko ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuak onetsi zuen Erregelamendua betetzeko, aditzera ematen da hamabost egun balioudunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hasita, jendearean egonen dela Etxalarko Udaleko bulegoetan tokiko ehiza barrutia eratzeke proiektuari buruzko espediente, barrutian sartu beharreko lurren jabeek aukera izan dezaten beren lurak barruti horretan sartzeari espresuki uko egiteko. Epe horren barruan uko espresa aurkezten ez bada, lurak ehiza barrutiaren barruan geldituko dira.

Barrutian sartu beharreko mugapea: Etxalar

Etxalar, 2015.07.15 Alkatea, Miguel M^a Irigoien Sanzberro

TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du ordezkapenetarako

Eskatzen da:

- Kazetaritza edo euskal ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPRESS programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculum-a info@ttipi.eus helbidera irailaren 1a baino lehen.

Egurra salgai. Nahi duzun tamainakoa, haritza eta pagoa. Etxera eramaten da. ☎636 412567/ 662038629.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

hemen
agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus**en

IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten
eta
argazkiarekin

8
EURO
10
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



AUZA IPARRAGIRRE Iturzaetak urteak beteko ditu uztailaren 31n. Auniz urtez, ongi pastu egune!! eta oroituta Loles eta Totori merendu pixket altxatzeaz!



Legasako ARAI ARTEAGA ANDRESENAK, uztailaren 23an 2 urte beteko ditu. Zorionak Legasako familiaren partetik. Hartu muxu eta besarka handi bat.



Zorionak JUNE! Uztailaren 12an Legasako June 2 urte beteko ditu. Muxu eta besarkada potolo bat Legasako familiaren partetik.



Legasako NAHIA MARINELARENA ELIZADEK uztailaren 25ean 4 urte beteko ditu. Zorionak Zubietako familiaren partez eta bereziki zure lehengusu Janire, Aimar eta Enaitzen partez. Egun ona pasa eta merendu goxoa prestatu. Muxuak



Donamariako OINATZ BALEZTENAK abuztuaren 7an 7 urte beteko ditu. Zorionak Jai eta Bihotzen partetik.



MARKEL LASARTE BARREDOK, uztailaren 4an urtea bete du. **MADDI LASARTE BARREDOK**, uztailaren 17an 4 urte bete ditu eta beraien lehengusuak, **JAVIER LASARTE LACAREK**, abuztuaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak hiruroi! Berako famili guztiaren partetik.



Berako GEXAN SAN JUAN AROZENAK 6 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak gure igerilariari famili guztiaren eta batez ere Aialaren partetik.



Arantzako AROA MIKELARENA TABERNAK 2 urte beteko ditu uztailaren 19an, eta bere attak uztailaren 26an. Zorionak eta muxu haunditu Sunbillako, Doneztebeko eta Arantzako familiaren partetik.



Sunbillako MAREN IRIGOYEN ARRETXEAK 5 urte bete ditu uztailaren 20an. Zorionak familia guztiaren partez guapisima.



ARITZ GOÑI IGUZKIAGIRREK uztailaren 25ean 2 urte beteko ditu. Zorionak famili guztiaren partetik eta bereziki Enaitzen partez! 2 muxu haundi itaporro!!



Uztailaren 24an Berako ANERREK 3 urte beteko ditu. Zorionak amatto, attatto eta bereziki Alain eta Oskitz anaien partez.



Zorionak ANER, amabi eta aitabiren partez. Ongi pasatu eguna eta arratsaldean prestatuko dugu onddo rebuelto ederra! Muxu haundi bat potoko!



AIALA SAN JUAN AROZENAK 9 urte beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak gure eskalatzaileari famili guztiaren eta batez ere Gexanen partetik.



JOSEBAK uztailaren 17an bete ditu 34 urte eta **IKERREK** uztailaren 28an beteko ditu 3 urte!! Zorionak eta muxu haundi bana Ander eta amatoxoren partez!! Egun ederrak pasako ditugu!



UXUE BARAIBAR OSKOZEK uztailaren 23an urtea beteko du. Auniz urtez Arantzako familiaren partez eta txokolatzeko muxubuak Egoitz eta Ekiñeren partez. Ongi pasa eguna!



Igantzikoa ALAINE BAZTERRIKA ANT-XORDOKIK uztailaren 22an 6 urte bete ditu. Zorionak Sunbilla eta Igantzikoa familiaren eta bereziki Jerairen partetik.



IKER LOIARTE zubietarrak urteak beteko ditu uztailaren 21ean. Auniz urtez familia guztiaren partetik.



Goizueta eta Urdazubiko lau OLAIZOLA hauei, zorionak auniz! Baina bereziki Aimari. Goiz zoriontsua pasa genuen uztailaren 7an. Segi horrela txapeldun! Joselu Azkonaren partez.



BEATRIZ MANTEROLA PETRIRENA sunbildarrak uztailaren 19an 80 urte bete ditu. Auniz urtez Urdazubiko familiaren partez eta bereziki zure biloba Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



AIMAR OLAIZOLA goizuetarrari zorion pila bat!!! Lau terdiko San Fermin torneooko finalean Irufean txapeldun izan zelako bosgarrenez. Joselu Azkonaren partez.




Lesakako UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK 6 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Auniz urtez eta sei muxu haundi familia guztiaren partetik.



JOANES eta IRATIK 9 eta 4 urte beteko dituzte abuztuaren 4an eta 25ean. Zorionak eta urte askotako familiaren partetik eta muxu haundi bana! Leitzan ospatuko dugu!



Zorionak NAHIA! Uztailaren 25an Legasako Nahia 4 urte beteko ditu. Muxu eta besarkada potolo bat Ata eta Amaren partetik.



IKERTXO ALZURI, lasterka batean ailegatu dira Arantzara zure 3 urte-txoak! Muxu potolo pila bat asko maite zaituen familiaren partez!



hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa
erran.eus en

argazki
soila
4
EURO

argazki
bikoitza
8
EURO


ALDIZKARIAN
eta
INTERNETEN

Zorionak zuri zorionak zuri
zorionak zuri zorionak beti!!!!



DONEZTEBE LAISTER ERAIKITZEKO

ELIZAGIBELA KALEAN



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com

GURE ESKUALDEKO MERKATARITZA GUNEA

Jantzi-dendaK

MANGO **Dezigual**

LACOSTE **Levi's**

Calvin Klein
RIP CURL **Pepe Jeans**

Lurrin-dendaK

CHANEL

D&G

CH

Dior

LANCÔME

GUCCI

DKNY

Jean Paul GAULTIER

YVES SAINT LAURENT

Thierry Mugler

Janari-dendaK



Gasolindegia



prezio Merkeenetan

Jatetxeak



Ibardin
www.ibardin.net

Nafarroako
Gobernua

Ibardin

EUSKAL KOSTAKO
MENDIA

Uste baino hurbilago!



URTE OSOAN IREKIA, IGANDEETAN ERE

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ZOZKETAK

**642. ALEKO
IRABAZLEAK:**

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE

72673111-B

epemuga 04/2016

Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA

T 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.eus

erran.eus

Kamiseta bat | ONDDO TA PUNTO
Manttoni Ballarena | ERRATZU

2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA
Iker Ayanz | AGOITZ

2 liburu | TTARTALO Argitaletxea
"Ozeanoa" | Jose Ramon Alduntzin | LEITZA
"Ingurumarian" | Maria Plaza | LEKAROS

2 sarrera | ZUGARRAMURDIKO SORGINEN LEZEAK
Rosalía Sanz | DONEZTEBE

2 sarrera | LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA
Geno Otxoteko | ARANTZA

2 produktu sorta | LANKU
Juan Pablo Agirre | NARBARTE
Zelestino Elizalde | ZIGA

KAMISETA BAT
Buatxabal
www.buatxabal.eu



AQVARIUM



2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

ttipi-ttapa

LESAKA | %10, eskeletan



ETXE TRESNAK S.L.

LEITZA | %10 koltxoak, somierrak eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik

edr' gunea

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan
%10, 50€tik gorako erosketetan
ESTHEDERM marka izan ezik



ZELA KIROLAK

BERA | %5

IPINGI

ELIZONDO | %10, 30€tik gorako erosketetan



3 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
"Maitasun sua" | "Haizearen izena" | "Kilimanjaroko diamantea"
www.ibaizabal.com

PIRRITX LIBURUA + MARGOTZEKO 2
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katxiporreta.com



2 SARRERA
Irrisarri Land
www.irrisarriand.com



ELE-MELE MAHAI JOKOA
Urtxintxa Eskola
www.urtxintxa.eus